# MUNGIARRA

MUNGIA
UDALA
AYUNTAMIENTO

## Jaiak eta azokak
San Antontxu eta Lapikoko Egunerako dana prest.

## Herria eraikitzen
Luz verde a las obras del nuevo ambulatorio.

## Aurrekontuak
Udal Aurrekontuak 2013: arduraz jokatzeko denbora.

# Ondo etorria 2013














# Mungiar agurgarriok:

Lerro honeek idazten deutsuedaz Urtearen akabuko egunetan eta, seguruenik, Urte Barria hasita daukagula irakurri ahal izango dozuez.

Ez da urte erraza izan, ez zuotako askorentzat, ez udal honentzat, eta Alkate moduan niretzat bere ez.

Aztertu daigun zertan asmatu dogun eta zertan erratu, egindakoa hobetzeko eta ondo urten ez daben esperientziak atzera ez sortzeko, baina batez bere, **2013a pozez, ilusinoz eta itxaropenez hasteko**; jatorkuzan hileotan gutako bakotxari geure arloan sortuko jakuzan erronka eta atazei erantzuteko behar dan besteko indarragaz ekiteko.

Proiektu eta ekimen barriek, beste ezer baino lehen, Mungian egoera sozio-ekonomiko bizi diran hainbat eta hainbat familiaren egoera latza hobetzeko balio izatea gurako geunke Udalaren gestinoaren ardurea daukagunok, izan bere, krisialdi ekonomikoaren barru-barruan sartuta gagoz eta bertatik urten beharra daukagu ahalik eta arinen.

Proiektuak, hobetze-bidean finkatuko gaituenak eta geure **Herriari behar dituan azpiegitura eta zerbitzuak eskainiko deutsiezanak** izango dira, Herri moduan kohesinoz eta harmoniaz aurrera egiten, hazten eta garatzen lagunduko deuskuenak, **danok batera, bidean inor atzean itxi barik**.

**Urte hau neurriz jokatzekoa eta urria izango da arlo ekonomikoan**, gitxiagogaz gehiago egitekoa. Ondo dakigu Udalaren aurrekontua bere nahikotxu bajatu dana, hau da, diru-sarrera gitxiago daukagu eta, beraz, gastua neurtzeko ez eze, murrizteko garaia bere da.

Eta ahalegin hori herritarrentzako daukaguzan **funtsezko zerbitzuak arean bere gitxitu barik egingo dogu**; kontrara, behar danean, **gizarte zerbitzuen** moduko gaietan, igo egingo dogu gastua, herrian egoerarik txarrenean bizi diranei laguntzeko; eta, hori baino gehiago, beste batzuen eskumeneko arloetan bere ahalegina egingo dogu eta zerbitzuak eskainiko doguz, kasurako, **enpleguan eta sustapen ekonomikoan** Behargintzaren bidez.

Izan bere, gure ustez, gaur egunean bizi dogun egoerearen aurrean alkartu egin behar dogu eta indarrak batu ondoan daukaguzanei laguntzeko. **Horixe da Udalbatzaren lehentasuna: egoera latz honek irauten dauen artean, bertatik urtetako eta berorren ondorio gogorrak leuntzeko neurriak bilatzea eta praktikan imintea danok batera.** Horrexeri eskainiko deutsagu, ezertariko zalantza barik, dakigunetik eta ahal dogunetik gehiena.

Dana dala, **beste gai batzuk bere arduratzen gaitue**. Egia esan, Udalok herritarrengandik paraje-paraje dagoan egunez eguneko politikea egiten dogu eta, horren ondorioz, batzuetan pentsau lei ez dagoala bertan inongo ñabardura politikorik. Baina hori ez da holan, eta izan bere ez dau holan izan behar.

Udalbatza osotzen dogun talde politikoetako zinegotziok botoa emon eta erabagiak hartzen doguz bertan, geure erespide politikoaren arabera. Ikuspegi horren arabera, bere garaian herritarrei programa zehatza aurkeztu geuntsen hauteskundeetan, eta, horren esparruan, legealdiko proiektuak zein ekimenak garatzeko ahalegina egiten dogu.

Eta ikuspegi politiko horrexen arabera saiatzen gara legealdian sortzen diran arazoak eta zailtasunak konpontzen.

Abertzaleontzat garrantzi eta esangura handikoa dan gai bat sortu da, kezkatu eta mindu egiten gaituena aldi berean; hau da, joan dan urteko **zemendiaren 30eko Osoko ezohiko Bilkuran Adierazpen Instituzional bat onartu zan.** Bilkura horretan **Mungiako Udalbatzak erabateko gaitzespena agertu eban Espainiako Gobernuaren ordezkariaren bidez gure herriko udaletxearen balkoian Espainiako banderea jarri beharra dagoala agintzen dauen inposizinoari.** Botoetara jo zan eta **EAJ/PNV eta EH-BILDUren aldeko botoak** jaso zituan; Monte Berriaga Taldea eta PSOE, barriz, abstenidu egin ziran. Hau da, **gagozan 17 zinegotzietatik 14ren aldeko botoa** jaso eban Adierazpenak.

Hiru hamarkada baino gehiago dira bandera hori udaletxeko balkoian ez dagoala, Espainiako Banderen Legea indarrean egon arren; eta hori, hain zuzen bere, mungiar gehienon eretxiz **bandera horrek ez gaitualako ordezkatzen da.** Sasoi bateko Udalbatzak holantxe erabagi eban, eta, gaur egun bere egoera hori errespetetako baino ez dogu eskatzen. Sikeran bere, harik eta Estadu espainolagaz Euskal Herriak daukazan hartu-emonak eta estatus juridiko zein politikoa behin betiko argitu eta antolatu arte.

**Mungiar gehienon borondatea eta sentimendua errespetetako baino ez dogu eskatzen, horren kontrako inposizino legal eta judizialak agertu barik**; izan bere, horrek, egitekotan, geure Herriaren alkarbizitzari baino ez deutso kalte egingo eta.

Lehentasunezkoa hortxe, ondo agirian dago, baina horregaz batera garrantzitsuari bere ardurea hartu behar jako. **Gure hizkuntza, gure kulturea, gure historia, gure ohiturak, gure sinboloak eta gure izakerea, ezaugarri bereizgarriak doguz, eta ezin gara geldi eta isilik lotu, ezer egin barik, era horretako inposizinoen aurrean.** Gora-adi lotu ezkero bere, arriskua daukagu guzurrezko normaltasun politikoaren irudi faltsuaren barruan epel lotzeko.

EAJko eta EH-BILDUko zinegotziok geure errazoi, **argudio eta eskubideak bide judizialean defendiduteko erabagia hartu dogu**, eta bide horretan heldu ahal garan lekuraino heldu. Erraza ez da izango, baina horixe da gure borondatea eta horixe gure betebeharra.

Jakin dakigu ondo era honetako gatazkak ez dirana auzitegietan irabazi edo galtzen. **Banderearen moduko ikurren zilegitasunaren oinarriari berorrek ordezkatzen dituan lagun guztien, eta kasu honetan mungiar guztion, gutako bakotxaren sentimenduak eusten deutso; eta mungiar gehienontzat, ohore hori ikurriñari baino ez jagoko.**

Gaur arte mungiarrok beti egin dogun legez, oingoan bere, alkarregaz joan ezkero, holango gaiei aurre egiteko kapaz izango garalako uste sendoagaz, besarkada handi bat agindutan deutsuet eta, horregaz batera, onena opa deutsuet danori 2013ko Urte Barrirako; eta Olentzerok Gabon Gauean udaletxeko balkoitik esan euskun lez, Gora Bihotzak!

Besarkada bero bat,

Izaskun Uriagereka | Mungiako alkatea

## Estimados/as mungiarras:

Os escribo estas líneas cuando está a punto de finalizar el año y con toda seguridad, habremos dado comienzo al Nuevo Año cuando podáis leerlas.

No ha sido un año fácil éste que dejamos atrás, ni para muchos de vosotros y vosotras, ni para éste Ayuntamiento ni para mí misma como Alcaldesa.

Tratemos de hacer balance de nuestros aciertos y errores con ánimo de seguir mejorando en lo posible y evitar experiencias fallidas pero sobre todo, **tratemos de recibir y comenzar el nuevo año 2013 con alegría, ilusión y esperanza**; con la energía necesaria para abordar los distintos retos que se nos presentan en los meses venideros, a cada uno en la esfera que le corresponda.

Nuevos proyectos e iniciativas que espero sirvan en nuestro caso, como responsables de la gestión municipal, en primer lugar, para mejorar la situación socio-económica de tantas y tantas familias de Mungia que lo están pasando realmente mal con esta situación de dura crisis ecónomica en la que estamos inmersos y de la que necesitamos salir cuanto antes.

Proyectos que nos hagan **mejorar y dotar de nuevas y necesarias infraestructuras y servicios para nuestro Pueblo**, que nos permitan avanzar y seguir creciendo de una manera cohesionada y armoniosa como Pueblo, conjuntamente, **sin dejar absolutamente a nadie en el camino**.

**Se presenta un año austero en lo económico**. A nadie se le escapa que también el presupuesto municipal se ha reducido considerablemente: tenemos menos ingresos y es tiempo, no ya sólo de ajustar, sino de reducir el gasto un poco más.

Trataremos de hacerlo **sin que los servicios esenciales para nuestros vecinos y vecinas se resientan lo más mínimo**; es más, incrementando el gasto si es preciso en áreas como los **servicios sociales** para ayudar a nuestros vecinos y vecinas más desfavorecidos, y ofreciendo servicios incluso en áreas cuya competencia corresponde a otras instancias, como son los **servicios de empleo y promoción económica** a través del Behargintza; simplemente porque entendemos que momentos como los que vivimos actualmente, **son momentos de sumar esfuerzos, de apoyarnos mutuamente para mejorar la situación de nuestros vecinos y vecinas**. Y ésa es la prioridad de la Corporación municipal en su conjunto: buscar y llevar a la práctica conjuntamente medidas que nos ayuden a salir de esta situación y paliar en la medida de lo posible sus efectos mientras esta dura situación continúe. A ello dedicaremos, sin ningún género de dudas, nuestro mayor saber y esfuerzo.

Pero también hay **otras cuestiones que también nos preocupan**. Es cierto que desde los Ayuntamientos, practicamos una política del día a día, cercana al ciudadano, tanto que en ocasiones parece exenta de connotaciones políticas. Pero evidentemente esto no es así ni debe serlo.

Los y las concejalas que desde distintas formaciones políticas formamos parte de la Corporación municipal emitimos nuestros votos y tomamos decisiones en el seno de la misma, en función, también, de un criterio político. En función de ésa misma visión presentamos en su momento un determinado programa a la ciudadanía en las elecciones y en el marco del mismo, intentamos desarrollar los distintos proyectos e iniciativas a lo largo de la legislatura.

También en función de ésa misma perspectiva política tratamos de abordar los problemas y dificultades que van surgiendo durante el desarrollo de la misma.

Y hay una cuestión de especial relevancia y significado para quienes nos sentimos abertzales que nos preocupa y nos disgusta, y que es la que suscitó la aprobación de una **Declaración Institucional en el Pleno Extraordinario celebrado el pasado día 30 noviembre**. En dicha sesión, y con los **votos a favor de EAJ/PNV y BILDU (14 concejales sobre un total de 17)**, y la abstención de la Agrupación Monte Berriaga y PSOE, se mostró el **rechazo absolutamente mayoritario de la Corporación Municipal de Mungia a la imposición de colocar la bandera española en el balcón del Ayuntamiento**, tal y como ha requerido hacerlo el Delegado del Gobierno Español.

Hace más de tres décadas que dicha bandera no ondea en el balcón del Ayuntamiento a pesar de la vigencia de la Ley de Banderas del Estado Español. **Simplemente porque la inmensa mayoría de mungiarras consideramos que no nos representa**. Así se decidió en su momento por la Corporación municipal de la época, y ésa misma situación es la que pedimos también ahora que se respete. Al menos hasta que las relaciones y el estatus jurídico y político de Euskal Herria para con el Estado Español se aclaren y ordenen definitivamente. **Únicamente pedimos respeto hacia la voluntad y el sentir mayoritario de los y las mungiarras, sin imposiciones legales ni judiciales** contrarias que no harán, en su caso, más que crispar la convivencia de nuestro Pueblo.

Con lo prioritario hay que ocuparse también de lo importante. **Nuestra lengua, nuestra cultura, nuestra historia, nuestras tradiciones, nuestros símbolos, nuestra forma de ser y de sentirnos vascos y vascas forman parte de nuestras señas de identidad, y no podemos caer en la pasividad y el silencio ante este tipo de imposiciones**, puesto que de lo contrario podríamos terminar por diluirnos en una falsa situación de normalidad política.

Los concejales de EAJ/PNV y BILDU **hemos decidido intentar hacer valer nuestros argumentos y nuestros derechos en la vía judicial** hasta donde nos sea posible. No será fácil pero es nuestra voluntad y también nuestra obligación.

Pero sabemos además que hay cuestiones como ésta que realmente, no se ganan o se pierden en los Tribunales. **La legitimidad de un símbolo como es la Bandera se sustenta sobre todo en el sentimiento de todas y cada una de las personas a las que representa, y en el caso de la inmensa mayoría de los y las mungiarras, ése honor corresponde únicamente a la Ikurriña**.

Con el convencimiento de que juntos conseguiremos también en ésta ocasión, hacer frente a estas cuestiones, como siempre lo hemos hecho en Mungia, os envío un fuerte abrazo y mis mejores deseos para el Nuevo Año 2013, y como nos dijo Olentzero desde el balcón del Ayuntamiento en Nochebuena, Gora Bihotzak!

Besarkada bero bat.

Izaskun Uriagereka | Mungiako Alkatea

# Espainiar bandera ipintzeko aginduaren kontrako adierazpen instituzionala

Mungiako Udalak 2012ko azaroaren 30ean ez-ohiko Osoko Bilkuran batzartuta, Espainiar Estatuko Gobernu ordezkariak udaletxean Espainiar bandera ipintzeko aginduarekin ezarritako aurre errekerimendu biak eta estatu abokatuak jarritako administrazioarekiko auzibide errekurtsoa ikusita, udalbatzako EAJ/PNV eta EH-BILDUko talde politikoen aldeko 14 botorekin, eta, Monte Berriaga Hauteskunde Elkartea eta PSE/PSOEren 3 abstentziorekin, honako Adierazpen Instituzionala onartzea adostu du:

1.- Udal honen arduradun nagusia den alkatea eta udalbatza osoa espainiar bandera Udaletxean ipintzera derrigortzen duen lege injustu eta inposatzaile baten erabilera arbuiatu eta salatzen dugu.

Bandera horrek ez du mungiarren gehiengoak sentitzen duena adierazten eta bere inposaketak gure auzokideen gehiengoaren sentimenduak mintzen ditu behin eta berriz, hauteskundeetako emaitzek eta hauen ondorioz sortutako udal taldeen osaketek erakusten duten bezala.

2.- 39/1981 Legeak, banderen legea deritzonak, 30 urte baino gehiago daramatza indarrean. Hala ere, gure herriko udal gehienetan, Mungiakoa barne, bere aplikazioa ez da exijitu azken hiru hamarkadetan.

Azken hogeita hamar urte hauetan, Euskal Herriak existitzeko eta herri aske eta burujabea izateko eskubidea eskatzen eta aldarrikatzen jarraitu du.

Hogeita hamar urte hauetan, abertzaleok gure bandera bakartzat hartzen dugun ikurriña, hala nahi izan dugun arren, ez da gure udaletxeko balkoian ipinita egon.

Eta ez da egon, gaur egun ere, oraindik konpondu gabe dagoen gatazka bat existitzen delako gure herrian: gure herria, Euskal Herria eta Estatu Espainiarrarekin arteko harremanak. Izan ere, azken honek, behin eta berriz Euskadiri bere etorkizuna demokratikoki eta askatasun osoz erabakitzeko aukera ukatzen dio.

3.- Gaur egun euskaldunok itxaropenezko bake garai bat bizi dugunean, gure herriko auzokide asko, Euskal Herriako beste asko bezalaxe, egoera ekonomikoaren ondorioz, premiazko arazo larriak bizitzen ari direnean, Espainiako Gobernu ordezkariak bere ahaleginak Mungian espainiar bandera ezartzera bideratzen ditu.

Legea bere alde dauka. Espainiako Diputatuen kongresuak onartutako lege esparruaren babesa dauka eta bere espainiar aberriaren parte sentitzen ez garenon bidezko sentimendu eta identitatea ukatzeko ahalmena ematen dio.

Mungiarroi geratzen zaigun aukera bakarra, epaitegietan neurri honen bidegabekeria defendatzea eta aintzat harraraztea da. Erabaki horrek amorrua eta mespretxua baino ez bait lituzke ekarriko gure auzokideen artera: estatu bat eta indarraren bidez zerbait eginarazi nahi diguten pertsonen aurkako mespretxua, esanekoari kasu ez egiteagatik gaitasungabetze zigorren mehatxua,...Azken batean, azken hiru hamarkadetan betearazi ez den lege itxurarekin jantzitako behartzea eta justoa ez den arau zaharkitu baten bidez bandera inposatu nahi digute, espainiar subirotasunaren alde, bere aberriaren batasun eta osotasunaren seinale.

4.- Honen aurrean, Euskal Herria herri aske eta burujabe bat izateko eskubidea aldarrikatzen dugu, eta gure herriaren bandera bakarra Ikurriña dela berresten dugu, gure arbasoek defenditu zutena eta gu identifikatzen gaituen bakarra. Bera sinbolotzat hartuta jarraituko dugu bai geuk eta bai geure ondorengoek ere gure herria eraikitzen, egun batean gure Udaletxeko balkoian Mungiako banderarekin batera, askatasunez eta berari bakarrik dagokion lekuan egon arte.

5.- Ordura arte, Espainiar Estatuko Gobernu ordezkariari eta Mariano Rajoyren gobernuari Mungiako herriaren borondatea eta sentipena errespetatu dezaten eskatzen diegu eta baita gure herriak, elkar-ulertzea eta elkarbizitza bermatzeko helburuarekin Udaletxeko balkoian inolako banderarik ez ipinita erakutsi duen begirune eta eskuzabaltasun berarekin jardun dezatela eskatzen diegu.

Inposaketa politikoa alde batera uztea eta normalidade demokratiko baten barruan herri batek askatasun osoz eta derrigortze gabe bere udaletxeko balkoian zein banderak ordezkatzea nahi duen erabakitzeko eskubidea eskatzen diegu. Edo behintzat, Euskal Herria eta Estatu Espainiarraren arteko erlazioak arautuko dituen estatus politikoa erabaki arte, orain arte Mungian gertatu den bezala, ez dadila bandera bat ere egon balkoian, inor ere minduta gerta ez dadin zerbait egin edo ez egiteagatik.

Babes legalarekin edo gabe eta indarra erabiliz neurriak aurrera eramaten dituztenek erabateko porrota izango dute.

Hori dela eta, sentsibilitate ezberdinen arteko elkar-ulertzea, errespetua eta elkarbizitza aldarrikatzen ditugu, herri baten gehiengoak sentitzen duena askatasunez eta normaltasunez islada dadin.

Akordio politikoa posiblea izan da beste gai batzuetan eta honetan ere bada. Posiblea eta beharrezkoa.

Elkarren arteko errespetua Herri baten elkarbizitzaren oinarria da. Horrela irakatsi ziguten gure arbasoek orain dela ehun urte baino gehiago eta horixe adierazten du gure herriko Alkartasunaren iturriak. Beste garai batean posible izan dena, gaur ere horrela izan dadila baino ez dugu eskatzen.

Zoritxarrez ez dago gure esku bakarrik baina gai honen inguruko hausnarketa sakon bat egitea gure Herriaren egoera behin betiko konpontzeko lehen pausua izan daiteke.

Mungia, 2012ko azaroaren 30

## Declaración institucional en contra de la imposición de colocar la bandera española

El Ayuntamiento de Mungia en Pleno Extraordinario reunido el día 30 de noviembre de 2012, ante los dos requerimientos previos practicados por el Delegado del Gobierno del Estado Español y la interposición de Recurso Contencioso-Administrativo por parte del Abogado del Estado, en orden a la imposición de colocar la bandera española en el edificio consistorial, acuerda aprobar, con 14 votos a favor (EAJ/PNV y EH-BILDU), y 3 abstenciones (PSE/PSOE y Agrupación Electoral Monte Berriaga), la siguiente Declaración Institucional:

1.- Rechazamos y denunciamos la utilización de un marco legal injusto e impositivo que obliga a la Alcaldesa como máxima representante del Ayuntamiento, y a la Corporación Municipal en su conjunto a colocar la bandera española en el Ayuntamiento.

Dicha enseña no representa el sentir de la inmensa mayoría de los y las mungiarras y su imposición hiere los sentimientos que mayoritariamente albergan la mayoría de nuestros vecinos y vecinas, tal y como claramente se refleja una y otra vez en los resultados electorales y en la configuración de los diferentes grupos políticos municipales.

2.- La Ley 39/1981, conocida como Ley de Banderas, lleva en vigor más de 30 años. Sin embargo, su aplicación no ha sido exigida durante ésas tres décadas en la mayoría de Ayuntamientos de nuestro País, entre ellos el de Mungia.

Treinta años en los que Euskal Herria ha continuado reclamando y reiterando su derecho a existir y decidir como Pueblo libre y soberano.

Treinta años durante los que la Ikurriña, única bandera que quienes nos sentimos abertzales reconocemos como propia, no ha ondeado siquiera en la balconada de nuestro Ayuntamiento, a pesar de que así lo hubiésemos deseado.

Y no lo ha hecho, precisamente porque existe un problema no resuelto aún a día de hoy: las relaciones de nuestro Pueblo, Euskal Herria, con el Estado español, el cual niega una y otra vez su derecho a decidir libre y democráticamente su futuro.

3.- En un momento como el actual, en el que los vascos y vascas vivimos un esperanzador escenario de paz; un momento en el que nuestros vecinos y vecinas sufren, al igual que otras miles de familias vascas, la dureza de la situación económica como una de las principales prioridades, el Delegado del Gobierno de España decide centrar sus esfuerzos en imponer al pueblo de Mungia la colocación de la bandera española.

Tiene en su mano los instrumentos legales para poder hacerlo. El marco normativo aprobado en el Congreso de los Diputados español le ampara y le da la cobertura legal que el legítimo sentimiento de pertenencia e identidad de quienes no nos sentimos partícipes de su Patria española, le niega.

A los y las mungiarras, únicamente nos queda intentar hacer valer y defender ante los tribunales la falta de legitimidad de tal medida que nada positivo aporta a nuestro municipio y que no va a generar más que crispación y desprecio entre nuestros vecinos y vecinas: desprecio hacia un Estado y sus brazos ejecutores que por medio de la fuerza, la amenaza de sanciones de inhabilitación por desobediencia, en definitiva, por medio de la coacción revestida de legalidad y amparándose en una norma injusta y trasnochada cuyo cumplimiento no ha sido exigido durante más de tres décadas, quiere imponernos su bandera, como símbolo de soberanía española, de unidad e integridad de su Patria.

4.- Ante ello, reiteramos el derecho a la libre determinación de Euskal Herria, como Pueblo libre y soberano, y reafirmamos nuestra declaración de que la única bandera que representa a nuestro Pueblo es la Ikurriña, por la que han luchado nuestros antepasados y con la que seguiremos identificándonos y construyendo nuestro País todos nosotros y nosotras así como las generaciones venideras, hasta que algún día, pueda ondear junto con la Bandera de Mungia en el balcón de nuestro Ayuntamiento, en libertad y en el lugar preferente que a ella y a ninguna otra le corresponde.

5.- Hasta entonces, solicitamos al Delegado del Gobierno del Estado Español y a su Gobierno presidido por Mariano Rajoy, que respeten el sentir y la voluntad del pueblo de Mungia, y en aras al entendimiento y a preservar la convivencia en nuestro municipio actúen con la misma generosidad con que hemos actuado los y las mungiarras hasta el momento manteniendo sin bandera alguna la balconada de nuestro Ayuntamiento.

Les pedimos que abandonen la política de imposición y asuman con normalidad democrática que un pueblo decida con libertad y sin coacción alguna la bandera que deba representarle en el balcón de su ayuntamiento o, al menos, mientras se establece definitivamente el estatus político que ha de definir la relación política de Euskal Herria con el Estado Español, permitan que, como ha ocurrido en el caso de Mungia, no ondee ninguna para, por acción u omisión no herir ninguna de las sensibilidades que conviven en el mismo.

Las medidas adoptadas desde una posición de fuerza, cuenten o no con la cobertura legal correspondiente, no abocan más que al fracaso absoluto a quien las ejecuta y practica.

Por ello apelamos al entendimiento entre diferentes sensibilidades, al respeto y a la convivencia como elementos que posibiliten un presente y un futuro en armonía, donde el sentir mayoritario de un Pueblo pueda tener su reflejo en libertad y con normalidad.

El acuerdo político ha sido posible en otras cuestiones y también lo es en ésta en concreto. Posible y necesario.

El respeto mutuo es la base de la convivencia de un Pueblo. Así nos lo enseñaron hace más de cien años nuestros antepasados y así reza en la Fuente de la Concordia de nuestro pueblo. Tan sólo deseamos que lo que fue posible en otros tiempos, lo sea también en el presente.

Lamentablemente no depende únicamente de nosotros y nosotras, pero tomar conciencia de determinadas cuestiones como la que nos ocupa puede ser un primer paso para solventar definitivamente nuestra situación como Pueblo.

Mungia, a 30 de noviembre de 2012

# Monte Berriaga: desestimado el recurso contra el presupuesto municipal



Si bien en el anterior Mungiarra informábamos de dos sentencias desfavorables para los intereses municipales, en esta ocasión, podemos decir que el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dictado, el pasado 11 de octubre de 2012, Sentencia favorable al Ayuntamiento en el Recurso que la Comunidad de Propietarios de la Urbanización de Monte Berriaga había interpuesto contra el mismo recurriendo el Presupuesto General y Organismos Autónomos del año 2010 de nuestro municipio, algo inédito en la historia de Mungia.

Basándose en el argumento de que los presupuestos de dicho año no recogían ninguna partida para afrontar los gastos de conservación y mantenimiento de la Urbanización Monte Berriaga, ni la prestación a la misma de los servicios urbanísticos básicos (argumentos por otra parte que año tras año siguen utilizando los representantes de la Agrupación Electoral Monte Berriaga para votar en contra de los presupuestos municipales), decidieron recurrir el instrumento económico del que se dota un Ayuntamiento ante los Tribunales.

Aunque alegaban en su Recurso que tras la Sentencia de mayo de 2009, el Ayuntamiento debería haber asumido la obligación de prestar todos los servicios urbanísticos de la Urbanización Monte Berriaga, y por tanto, el presupuesto del año 2010 debía contener la pertinente consignación para hacer frente a esa obligación, el Tribunal Superior ha desestimado el Recurso declarando que el alcance de las obligaciones municipales deberá ser determinado por el Juzgado correspondiente en su momento (en uno de los múltiples procedimientos judiciales en curso), por lo que no resulta preciso por tanto, que el Ayuntamiento consigne ni prevea en el presupuesto municipal ninguna partida económica para hacer frente, en su caso, a las mismas.

Concluye el Tribunal Superior señalando que no existe por tanto el incumplimiento denunciado por la Comunidad de Propietarios, ni obligación municipal exigible en los términos requeridos por la misma.

## Berreagamendi: aurrekontuaren aurkako errekursoa gaitzetsi da

Joan dan urriaren 11n, "Berreagamendi Urigintza Lankidetzako Entitateak (ECU)" Mungiako 2010eko Udal Aurrekontuaren aurka aurkeztu eban errekursoa gaitzetsi eban Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak.

Honako hauxe izan zan errekursoaren oinarria: 2010. urteko aurrekontuetan, ez zan urbanizazinoa jagoteko eta artatzeko kontu-sailik agertzen, ezta urbanizazinoaren oinarrizko urigintza-zerbitzuei aurre egiteko kontu-sailik be.

Auzitegi Nagusiaren ebazpenaren arabera, beste auzi batzuetako epaiak hartu beharko dira kontuan, Mungiako Udalaren eginbeharra zein dan zehazteko. Lehenago, ostera, adierazo be egin eban aurrekontuan ez dala horri aurre egiteko ezelako kontu-sailik agertu behar.

Epai horri esker, holako ekintzak egin aurretik hobeto pentsauko dabelakoan dago udala, ezin dalako herri osoaren urteko aurrekontuaren kontrako errekursoa aurkeztu, gitxi batzuen interesak defendiduteko.

Esperamos que la nitidez del Fallo Judicial evite y disuada a sus impulsores de presentar en el futuro similares iniciativas, y de semejante gravedad, como la de osar recurrir el Presupuesto Municipal de un año para todo un municipio en defensa de un interés particular privado. Mungia no se lo merece en ningún caso.

# Los presupuestos del Ayuntamiento 2013

**El pasado 14 de diciembre, el pleno municipal aprobó los presupuestos del Ayuntamiento y resto de entidades municipales correspondientes al año 2013.**

El presupuesto de nuestro Ayuntamiento para 2013 es de **15.394.595,25** euros, frente a los 18.028.244 euros de 2012, esto es, **casi un 15% inferior al del pasado año.**

Como todos conocemos el 2013 será ya el sexto año de esta crisis que nos toca vivir. Y de la que todavía no se ve la luz al final del túnel. Todas las crisis traen dos elementos en común:

• **Bajada de los ingresos.** (Baja la actividad, cae la recaudación de impuestos, y las subvenciones desde otras administraciones se reducen de manera importante). A modo de ejemplo podemos mencionar dos de las partidas presupuestarias que mayor bajada experimentan en el capítulo de ingresos: Los ingresos por Udalkutxa provenientes de la Diputación Foral de Bizkaia que caerán en torno a un 6% y el Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras, por el que la recaudación prevista es un 30% inferior al año 2012.

• **Aumento de las necesidades:** principalmente en los capítulos de gasto social, con un mayor número de personas en dificultades y con una destrucción masiva del empleo que requieren además, la adopción de medidas por parte de la Administración con cierto dinamismo, en función de la evolución concreta de la situación laboral y económica que les toque afrontar.

Estas dos circunstancias han condicionado la elaboración de los presupuestos, que no olvidemos, son el documento en el que una Administración asienta sus políticas y plantea sus actuaciones.

De la lectura del presupuesto se observan unas **claras líneas de actuación política**:



a) Evidente preocupación por **atender las necesidades de carácter social** de los y las mungiarras. Y en especial por quienes precisen de un mayor apoyo y ayuda. Para ello, y a pesar de la caída de ingresos se ha mantenido el dinero para gastos sociales. Es necesariamente la parte más dinámica del presupuesto por cuanto, desde los Servicios Sociales se van planteando las situaciones más urgentes que han de ser atendidas y las medidas para paliar en lo posible la incidencia de la crisis en las familias más desfavorecidas.

b) Una **lucha decidida por el empleo**, no sólo manteniendo el empleo interno (también afectado por diferentes ajustes en sus condiciones laborales y por la congelación salarial), y colaborando al manteninimiento de las empresa proveedoras de servicios con las que trabaja el Ayuntamiento, sino también desarrollando actividades para el resto de la población a través de un Plan Comarcal de Empleo que ha sido presentado al Gobierno Vasco y bajo cuyo marco de actuación trataremos de poner distintas iniciativas en marcha a lo largo del 2013 encaminadas a dinamizar el mercado laboral en el municipio y la comarca, con la colaboración de los Ayuntamientos de Mungialde y Lanbide.

c) Un esfuerzo permanente y riguroso dirigido a la **reducción del gasto corriente**. Así, tras un año 2012 en el que se llevaron a cabo reducciones iniciales del 30% en la mayoría de las partidas, en 2013 hemos dado una vuelta más de tuerca a aquellos gastos que, aun siendo necesarios, son menos imprescindibles. Tratando de no prescindir de los servicios que ofrecemos a los mungiarras, tendremos que intentar optimizar

y racionalizar el gasto aún más en consumo energético y/o servicios complementarios que hemos podido ofrecer en época de bonanza económica pero que actualmente es necesario revisar.

d) **No penalizar a las economías familiares**, limitando la subida de tributos únicamente al IPC, a pesar del importante incremento del IVA que tenemos que soportar pero que optamos por no repercutir a los vecinos y vecinas para no agravar aún más la situación de las economías familiares.

e) Ofrecer a los ciudadanos y ciudadanas de Mungia un **Ayuntamiento cada vez más saneado**. Así en 2013, tras devolver en su totalidad los importes de Udalkutxa cobrados en exceso en años anteriores, aún disminuiremos en 400.000 euros el único préstamo que mantiene el Ayuntamiento a día de hoy: el préstamo que se obtuvo, en su día, para la realización de las obras de la casa consistorial.

Pero conseguir todos estos objetivos no ha resultado ni resultará tarea fácil:

• Ha precisado de una nueva renegociación con los principales proveedores de servicios del Ayuntamiento, a fin de reducir los costes a pagar. Evidentemente para que dichos ajustes tengan la menor incidencia posible en la calidad de vida de los y las mungiarras, necesitaremos de la **colaboración y comprensión de todos y todas: una mayor corresponsabilidad en la utilización de los servicios públicos**, la colaboración ciudadana en el mantenimiento de la limpieza viaria y el depósito de residuos en la vía pública, la correcta utilización de las carteleras habilitadas para el pegado de carteles, un mayor cuidado y respeto por el mobiliario urbano, son cuestiones que dependen de todos y cada uno de los mungiarras y en las que con un mínimo de concienciación podríamos ahorrar importantes cantidades de dinero con las que abordar mejoras para el municipio.

• De igual manera, ha sido necesaria una **reducción temporal de algunas de las subvenciones** que desde el Ayuntamientos se ofrecen para **actividades culturales** a distintas Asociaciones, al igual que las partidas habilitadas para las distintas **Fiestas patronales y de barrios** que celebramos a lo largo del año en Mungia. Intentando mantener al máximo la variedad de espectáculos para todos los públicos y edades que forma ya parte de la programación cultural habitual que se ofrece tanto desde el tejido asociativo como desde Astiune, trataremos de ajustar el gasto a los aspectos centrales de cada acto festivo, tratando así de que ninguna actividad de las que forman ya parte del calendario cultural habitual deje de hacerse pero sí habremos de eliminar lo que resulte accesorio o complementario a la actividad o festividad en sí.



• También hemos previsto una severa **limitación inicial en las inversiones a abordar este nuevo año**, de manera que, al igual que en 2012, sólo acometeremos aquellas que sean necesarias para poder poner en marcha servicios y proyectos absolutamente imprescindibles para el municipio y/o proyectos para los que obtengamos financiación añadida de alguna otra Entidad y que supongan por ello una oportunidad clara. A los mismos irán dirigidas las cantidades que como remanentes se han ido generando en otros ejercicios anteriores y que ahora nos permitirán acometer las obras necesarias a unos precios sustancialmente mejorados respecto de épocas pasadas.

• Por último, señalar que también desde los **distintos grupos políticos** con representación municipal se ha tomado la decisión de colaborar en éste ajuste del gasto que venimos señalando y se ha aprobado por unanimidad la **reducción de las asignaciones fijas que a cada grupo** le correspondería percibir durante el año 2013, además de la **congelación de las que se abonan por asistencias** a los órganos colegiados de la Corporación.

En resumen, el año 2013 se presenta como un año complejo en lo económico. Sin embargo, consideramos que el presupuesto municipal, a pesar de no poder contar con los ingresos que todos desearíamos, puede y debe ser una herramienta útil, dinámica y al servicio de las necesidades de nuestros vecinos y vecinas.

Afrontaremos la situación, volcándonos en los aspectos señalados como prioritarios, pero sin perder de vista en ningún momento

que debemos seguir manteniendo la perspectiva de posicionarnos en las mejores condiciones posibles para seguir trabajando para nuestros vecinos y vecinas cuando la situación económica mejore.

## 2013rako udal aurrekontuak

**Gure udaleko aurrekontua, igazkoa baino %15 txikiagoa da, danok ezagutzen dogun krisiaren eraginez. Edozein krisik diru sarreren jatsiera eta beharrizan sozialen igoera dakar. Aurtengo aurrekontuak puntu bi horreetan oinarrituta egin dira.**

Aurrekontuari begiratu ezkero, argi eta garbi dago zein izango dan jarduera politikoa zuzenduko dauen bidea: mungiarrek egoera sozial honetan daukiezan beharrizanak betetea, gastu sozialari eutsita eta lanpostuak bultzatuta. Horretarako, familiei ez jake ahalegin handiagoa eskatuko, eta udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua izango da. Hori lortzeko, erabagi batzuk hartu beharko dira: zerbitzu enpresekin prezioak banan-banan negozietea, udalak emoten dauzan diru-laguntza batzuk gitxitzea, jaietarako onartutako dirua murriztea, behar-beharrezkoak baino ez diran inbertsinoak egitea eta talde politikoek hartzen daben dirua gitxitzea, besteak beste.

Astiunerako Udal Erakundeak be %7,1eko murrizketa euki dau bere aurrekontuan, baina zerbitzuei eustea izan da bere ahalegin nagusia.

Mungialdeko Behargintzari jagokonez, kanpoko diru-laguntzez finantziautako soziedadea da, eta, sasoi honetan, udalarentzat oso-oso beharrezkoa da bertan garatzen daben lana.

Uriguen Udal Haurtzaindegiaren aurrekontuari eutsiko jako.

Mungia Beharrean soziedadeari jagokonez, aurton Larrabizker inguruan eregi beharreko 77 etxebizitzak egiten hasiko da.



### ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS

Los presupuestos municipales no sólo recogen las cifras económicas del Ayuntamiento, sino también la del resto de organismos municipales. Así tenemos:

### ASTIUNE

Los presupuestos del organismo autónomo municipal a Astiunerako Udal Erakundea ascienden en 2013 a un total de 3.690.400 euros, frente a los 3.972.720 euros de 2012. Suponiendo una bajada del 7,1% para el 2013.

A pesar de esta reducción en el capítulo de ingresos y su consecuente disminución de los gastos, se ha realizado un enorme esfuerzo presupuestario para poder mantener la totalidad de los servicios en los niveles de calidad y eficiencia a que los y las mungiarras estamos acostumbrados y que de forma prioritaria trataremos de seguir manteniendo.

En cuanto al **Polideportivo Municipal**, y siguiendo con la racionalización del gasto anteriormente expuesto, se implantarán desde el día 1 de enero una serie de medidas que, tras el análisis objetivo de los usos que se realizan de las instalaciones se ha considerado pueden ayudar a optimizar el mismo, con una mínima incidencia en la prestación del servicio a la inmensa mayoría de los y las usuarias habituales. Así, **se reducirá el horario de apertura del Polideportivo Municipal los domingos y festivos**, con horario exclusivo de mañana (de 9:00 a 14:00 horas); y por otra parte, durante los **meses de julio y agosto, se cerrarán las piscinas interiores**, permaneciendo abiertas las exteriores.

### MUNGIAKO BEHARGINTZA S.L.

El Behargintza se financia única y exclusivamente de las subvenciones procedentes de otras administraciones públicas y de las aportaciones que el propio Ayuntamiento realiza para el desarrollo de su actividad en el área de empleo y promoción económica del municipio.

Desde el Ayuntamiento entendemos que, en momentos de crisis, como los que padecemos, el mantenimiento de su actividad es de vital importancia en la búsqueda de actuaciones y actividades para el mantenimiento y el fomento del empleo entre las personas desempleadas del municipio y de la

comarca así como entre las personas que necesitan mejorar el empleo, en ocasiones precario, que mantienen. Aunque no sea una competencia municipal, servicios como la Orientación Laboral personalizada, la intermediación laboral entre empleadores y personas que buscan empleo, la mejora de la competitividad de las numerosas pequeñas y medianas empresas del municipio, el asesoramiento a nuevos emprendedores, y la dinamización del tejido comercial del municipio son apuestas absolutamente prioritarias y necesarias para dinamizar el tejido productivo y económico de Mungia.

El conjunto de subvenciones y financiación externa que podamos obtener para abordar nuevos proyectos y programas en este sentido, determinará el conjunto de actuaciones a realizar, pero en todo caso seguimos apostando por mantener y mejorar en lo posible los distintos servicios que el personal del Behargintza ofrece a las personas y empresas con las que colabora.

En principio, y hasta concretar a lo largo de 2013 las transferencias que puedan recibirse, el presupuesto de partida es de 487.629,69 euros.

## FUNDACION URIGUEN UDAL HAURTZAINDEGIA

La Fundación Uriguen mantiene un nivel presupuestario similar al de 2012. Aunque la actividad educativo-asistencial es competencia del Consorcio Haurreskolak, el Ayuntamiento colabora con el mantenimiento de los servicios de limpieza, comedor e instalaciones del centro. Con un incremento de 1,7% en el presupuesto de 2013, esta cifra le permitirá mantener dicha colaboración, a pesar de la importante subida del IVA que soportará con relación al pasado año. El presupuesto de 2013 será de 118.775 euros.



## MUNGIA BEHARREAN S.A.

La sociedad pública Mungia Beharrean S.A., cuyo objeto social es la promoción y construcción de Viviendas de Protección Oficial para los y las mungiarras , emprenderá su primer proyecto, tal y como se ha anunciado en diversas ocasiones, durante este año 2013. Será en el área de Larrabizker , y contará con un presupuesto total de 2.885.161 euros. A pesar de los distintos retrasos que el complejo desarrollo urbanístico del sector está motivando, esperamos poder comenzar la construcción de las 77 viviendas en cuanto se apruebe definitivamente el Proyecto de Reparcelación del sector. Aunque el camino recorrido hasta el momento ha sido extremadamente dificultoso, con diferentes trámites y documentos urbanísticos que hemos tenido que ir desarrollando, podemos decir que ciertamente nos encontramos en la última fase del mismo y que en pocos meses podremos definitivamente materializar esta oportunidad y ofrecer una vivienda digna a un precio asequible a muchos y muchas mungiarras.

En conjunto y como resumen, consideramos que el documento presupuestario aprobado por el Ayuntamiento de Mungia para el ejercicio 2013 es el resultado de una apuesta evidente por atender las necesidades prioritarias de los y la mungiarras que se encuentran en situación más desfavorecida; por un compromiso con el mantenimiento del empleo y la reactivación económica; por preservar la calidad de los servicios esenciales que ofrecemos al conjunto de vecinos y vecinas del municipio; una apuesta por el esfuerzo municipal en la contención de los impuestos; una preocupación por mantener la solvencia municipal y por la búsqueda continuada de la eficiencia en el gasto. Con esta filosofía afrontamos el nuevo año.

# Mungia herri solidarioa



Mungiako herriak bere laguntza emon deutso, joan diren gabon jaietan, gure herrian baliabide ekonomiko urriak daukiezan familiei, eurak bere jai honeek pozez eta ilusinoz bizi dagiezan. Horretarako, Mungiako Udaleko Gizartekintza Sailak eta Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoak bultzatutako bi ekimen solidarioetan parte hartu dabe herritarrek.

Alde batetik, "OLENTZERO MUNGIAKO ETXE GUZTIETAN" kanpainaren barruan herriko hainbat lagunek eta familiak, euren izakera solidarioa erakutsita, prezio ezbardinetako bonoak (5 eurotik gorakoak) erosi dabez herriko merkataritzako lokal batzuetan; eta horretara, Olentzerok Mungiako ume guztiei bisita egitea lortu dogu, baita baliabide ekonomiko urriak daukiezan 40 familietako umeei bere.

Beste alde batetik, urteko egunik seinaladuenetan Mungiako familia guztiek jatordu bereziak izateko modua izan daien, abenduaren 21ean eta 22an herriko supermerkatuetan Gabon-jaietako jateko produktuak batzeko kanpaina egin da "GABONETAN JATEKO BEREZIAK DANONTZAT" lelopean.

Bigarren ekimen honen bidez, egunero kontsumitzen doguzan baino, produktu bereziagoak batzea izan da helburua. Guztira, 300 kilo janari 45 familia desberdinen artean banatu dira.

Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoko langileak osatu dabez kanpaina bi horreen onuradunak izan diran familien zerrendak, beti bere, egoera ekonomikoa eta familia bakotxaren ezaugarriak eta kide kopurua kontuan izanda.

Partzuergoko beharginak, eurak, arduratu dira opariak erosi eta banatzeaz.

Mungiak atzera bere herri eskuzabala dala erakutsi dau, konprometitzeko eta bizi dogun egoera latz honetan larri dagozanei laguntzeko prest dagoana.

Parte hartu dozuen guztioi, MILA ESKER BIHOTZ BIHOTZEZ!!

## Mungia, un pueblo muy solidario

El pueblo de Mungia se ha volcado, en estas pasadas fechas navideñas, para ayudar a las familias más desfavorecidas de nuestro municipio y contribuir para que también ellas puedan celebrar y vivir estas fiestas con ilusión y alegría. Para ello, ha tomado parte de forma altruista en dos iniciativas solidarias impulsadas desde el Área de Acción Social del Ayuntamientoy el Consorcio Mungialde de Servicios Sociales.

Mediante la campaña "OLENTZERO MUNGIAKO ETXE GUZTIETAN" muchas personas de Mungia han mostrado su solidaridad comprando bonos (a partir de 5 euros) en algunos comercios del municipio, haciendo posible que 40 niños y niñas pertenecientes a familias sin recursos hayan tenido también su regalo de Olentzero.

Por otra parte, con el fin de que todas las familias de Mungia pudieran difrutar y degustar en sus mesas alimentos y productos más especiales de los consumidos habitualmente, los días 21 y 22 de diciembre se recogieron productos especiales para Navidad en los supermercados, bajo el lema "GABONETAN JATEKO BEREZIAK DANONTZAT".

Con esta actuación, que ha consistido en la adquisición y donación por parte de la población de productos algo más selectos, menos asequibles y de mayor calidad, se han recogido 300 kgs. de productos, con los que se han preparado cestas que se han repartido entre 45 familias sin recursos económicos de Mungia.

En ambos casos, el personal del Consorcio Mungialde de Servicios Sociales se hizo cargo de confeccionar la lista de familias beneficiarias, teniendo en cuenta la situación, características o número de miembros de cada familia. La entrega de los regalos para los niños y niñas, y de los alimentos recogidos se ha gestionado directamente desde el Consorcio para garantizar la privacidad de las personas beneficiarias.

Un vez más, Mungia ha dado muestra de su gran espíritu de compromiso y solidaridad hacia quienes peor lo están pasando.

A quienes habéis colaborado, MILA ESKER BIHOTZ BIHOTZEZ!!!

# Recogida de móviles y tablets usados a favor del síndrome de angelman

Recientemente hemos sabido que un niño de nuestro municipio padece una enfermedad rara denominada como "Síndrome de Angelman", una enfermedad neurogenética que se caracteriza por retraso mental severo, afectación del habla, ataxia, convulsiones o temblores de las extremidades, así como por otros trastornos de la salud. Se trata de una enfermedad que afecta a 1 de entre 20.000-30.000 recién nacidos.

Con el fin de proporcionar ayuda a las 150 familias de los niños y niñas afectadas en el Estado Español, en 1996 se creó la Asociación de Síndrome de Angelman, una entidad sin ánimo de lucro que trabaja de forma incansable con el fin de ofrecer soporte humano a estas familias, así como promover acciones de formación, investigación y asesoramiento en torno a esta problemática.

Con el fin de colaborar con esta Asociación, el Ayuntamiento de Mungia, con la colaboración de los centros escolares del municipio, ha puesto en marcha una CAMPAÑA DE RECOGIDA DE TELÉFONOS MÓVILES O TABLETS USADOS como fórmula para recaudar fondos que servirán para la investigación que a día de hoy se está desarrollando en Estados Unidos, y que puede suponer un rayo de esperanza para estos niños, así como para ayudar económicamente a sus familias.

Los móviles o tablets que se recojan pueden funcionar o no, y serán vendidos posteriormente a las compañías de telefonía.



**APARATUAK BATZEKO TOKIAK**
**Puntos de recogida:**
Urtarrilaren 31rarte
Hasta el 31 de Enero

**UDAL TOKIAK**
**Locales Municipales:**

J.A. AGIRRE POLIKIROLDEGIA
**Lanegunak** / Laborables: 8:00-22:00
**Zapatuak** / Sábados: 9:00-21:00
**Domekak** / Domingos: 9:00-14:00

MUGIRE TXOKOA
**Astelehenetik barikora** / Lunes a viernes: 16:00-20:00

TORREBILLELA KULTUR ETXEA
**Astelehenetik barikora** / lunes a viernes: 10:00-13:30 / 16:00-21:00
**Zapatuak** / Sábados: 10:00-13:30

OLALDE ARETOA
**Astelehenetik barikora** / Lunes a viernes: 16:00-20:00

**IKASTETXEAK**
**Centros Educativos:**

Bentades Ikastetxea / Larramendi Ikastola / Laukariz Ikastetxea / Legarda Ikastetxea / Mungia Institutua

**INFO + :**

www.angelman-asa.org
www.facebook.com/recogidamoviles.sindromeangelman

## Angelman Sindromea: Telefono mugikor eta tablet zaharrak batzeko kanpaina

Gure herrian Angelman Sindromea daukan ume bat dago. Angelman Sindromea honako ondorioak dakarzan gaixotasun neurogenetikoa da: adimen-atzerapen larria, berba egiteko arazoak, ataxia, konbulsinoak edo hanka/besoen dardakadak... eta beste hainbat osasun arazo. Arrarotzat joten diran gaixotasunetako bat da, 20.000-30.000 jaiobarritik bati eragiten deutsona.

Angelman Sindromearen Alkarteak –dirurik irabazteko asmo bako alkartea– lan gogorra eta egunerokoa egiten dau familia horreei giza-laguntza eskaintzeko, baita gaixotasun honen ganeko prestakuntza, ikerketa eta aholkularitza jarduerak antolatzeko bere.

Alkarte horri lagundu gurean, Mungiako Udalak eta herriko ikastetxeek kanpaina bat jarri dabe abian, TELEFONO MUGIKOR ETA TABLET ZAHARRAK BATZEKO KANPAINA hain zuzen bere. Kanpaina horren bidez batzen dan diruak helburu bi izango ditu: bata, gaur egun Estatu Batuetan gaixotasun honen inguruan egiten dabilzan ikerketa-lanak indartzea, izan bere, ikerketa hori esperantza-argia izan leiteke-eta umeontzat; eta bestea, gaixotasun hau sufritzen daben familiei diruz laguntzea.

Mugikor eta tablet guztiak onartuko dira, funzionatu zein ez, eta gero telefonia-konpainiei salduko jakez.

# Errosko Jaia 2013



Mungian, aurreko urteetan lez, Udalak sustatuta, "Errosko Solidarioaren jaia" egin da aurten bere. Jai honen helburua zera da: egoerarik latzenean dagozan herritarrei eta taldeei borondate hutsez laguntza eskaintzen deutseen erakunde, proiektu eta ekimenetarako dirua batzea.

Urtero bezala, aurtengoa bederatzigarren edizinoa izan dogu-eta, jai hau urtarrilaren 5ean egin da, Errege Egunaren bezperan (17:00etatik gora) Andra Mari Gunean.

Jaialdi hau egin ahal izateko, 60 metroko luzera daukan Gabon opila beharrezkoa izan da. Urtean urtean egiten daben lez. Gabon-opil hori errazinotan banatu da eta herritarrei txokolate beroa eta opil errazinoa bana emon jake euro baten truke (1€) Diz- Diz elkartearen laguntzeagaz. Gabon-opila Udaleko ordezkari politikoek eta txirrindularitza arloan ezagunak diran kirolariek banatu dabe.

Aurten ekimen honen bidez batu dan diru guztia –benefizioak eta diru-ekarpenak– Angelman Sindromearen Alkarteari emon jakoz. Izan bere, alkarte horrek sano behar handia egiten dau gaixotasun hori jasaten daben umeen eta euron familien bizi-kalidadea hobetzeko.

Jaialdiaren amaieran "Ipar Poloan bero, dantzatuz gero" umeentzako ikuskizuna eskaini da.

Mungiako Gorabide Alkarteak eta Dolores Tranche Mungiako pintoreak, Angelman elkartearentzako emondako koadroak azpimarratu behar dira. Beti ere, elkarteen artean dagoean solidaritatea erakutsiz.

## Fiesta solidaria del roscón

El pasado 5 de enero (víspera de Reyes), hemos celebrado la 9º edición de la Fiesta solidaria del roscón promovida por el Ayuntamiento de Mungia, tiene como objetivo de ayudar a recoger fondos para los más necesitados.

Los beneficios recaudados han sido para la asociación del síndrome de Angelman.

Para dicha celebración que para esta celebración se ha realizado un roscón de reyes de 60 metros de longitud, para repartirlo con raciones de chocolate al precio de 1€ con la ayuda de Diz-Diz elkartea.

Destacar que en esta edición, Mungiako Gorbide Elkartea y la pintora mungiarra Dolores Tranche han donado a dicha asociación, sendos cuadros mostrando la solidaridad entre asociaciones.



# 25 noviembre: contra la violencia hacia las mujeres

Segundo año del concurso juvenil Mungian beldur barik!

La juventud de Mungia ha mostrado por segundo año consecutivo su postura contra las actitudes y comportamientos violentos cuestionándose valores y mentalidades sexistas. Chicas y chicos de los centros escolares de nuestro municipio han presentado sus trabajos contra la violencia hacia las mujeres y, en la categoría de 12 a 14 años, las propuestas premiadas han sido, en la modalidad individual, la de Haizea Gorriño de Mungiako Institutua por su trabajo "campaña contra la violencia de género", y en la modalidad grupal el premio ha recaído en Leonel, William, Llana, Nihad y Nahia del aula de apoyo, con su mural "lorategi boteretsua". El premio de la categoría de 15 a 17 años, en esta ocasión, ha quedado desierto. Las chicas y chicos recogieron el premio de manos de la alcaldesa minutos antes de ser espectadores, junto a sus familiares y a cientos de mungiarras, de la obra de teatro que representó el taller de la asociación de mujeres Diz-Diz de Mungia. A través de esta obra, un año más, la asociación nos hace reflexionar sobre la grave problemática de los malos tratos hacia las mujeres y en está ocasión hicieron hincapié en el maltrato psicológico cuyo propósito es disminuir la dignidad y el valor de la mujer como persona.

Nuestro municipio se halla inmerso en la realización del III Plan de Igualdad y uno de los objetivos de este nuevo plan es conocer las costumbres de vida de las y los mungiarras, su grado de conocimiento y participación en las actividades relacionadas con la igualdad y sus preferencias e inquietudes en este ámbito para los años venideros. Por todo ello, se ha realizado una encuesta a la ciudadanía de Mungia en lugares y situaciones cotidianas y los resultados de la misma fueron presentados el jueves 22 de noviembre en Mugire Txokoa. De esta encuesta se concluye que uno de los temas que más preocupa es la violencia contra las mujeres y la actuación y respuesta que se da a nivel municipal a esta problemática. En respuesta a esta preocupación, también se mostraron los datos y el perfil de los casos de violencia de género que se han venido trabajando en Mungia en los últimos años. La actriz Ikerne Goikoetxea puso su granito de arena, a través del monólogo "el pitillo", escenificando la problemática de una mujer maltratada en nuestra sociedad.

Al día siguiente, el viernes 23, la mañana comenzó con el reparto de chocolate y bizcochos por parte de la asociación de Mujeres Diz-Diz. Hacia las 12 del mediodía un nutrido grupo de personas se concentró en las escaleras del ayuntamiento para, en esta ocasión a través del silencio, mostrar la repulsa contra la violencia y a la vez la solidaridad con las familias y las mujeres que día a día están sometidas a la crudeza de una vida de miedo, dominación y vulnerabilidad.

Y tal y como ha quedado patente en la encuesta realizada en el municipio, donde tanto mujeres como hombres constatan que la problemática de la violencia es una prioridad a tratar, un año más, el pueblo de Mungia a través de su numerosa participación en los actos organizados ha dejado claro que todas y todos podemos y debemos posicionarnos frente a la violencia contra las mujeres.

## Azaroak 25: emakumek jasaten daben indarkeriaren kontrako eguna

**Mungian beldur barik! gazte-lehiaketaren bigarren edizinoa**

Gure gazteek, aurten bere erakutsi dabe indakeria-jarreren kontra dagozala, eta gure gizartean ikusten dabezan hainbat balore sexista salatu dabez.

Saritutako lanak:

12-14 urte bitartekoak: bakarkako lanetan, Institutuko Haizea Gorriñoren "Genero indarkeriaren kontrako kanpaina" izan da irabazlea; eta taldekakoan, laguntza-gelako Leonel, William, Llana, Nihad eta Nahiaren "lorategi boteretsua" horma-irudia.

15-17 urte bitartekoak: ez da saririk emon.

Neska-mutilek alkateak emonda jaso ebezan sariak.

Sari-banaketaren ostean Diz-Diz emakumeen alkarteko antzerki-tailerrak antzezlan bat eskaini eban. Horren bidez, urteroko moduan, Diz-Diz alkarteak emakumeek jasaten dabezan tratu txarren ganean hausnartu eragin euskun.

Zemendiaren 23an, Diz-Diz alkarteko kideek txokolatea eta bizkotxoak banatu ebezen. Eguerdian, herritar talde ederra batu zan Udaletxe aurrean emakumeen kontrako biolentzia konzentrazino isilaren bidez salatzeko.

Herrian egindako inkestak erakutsi dauenez, indarkeria lehentasunezko gaia da mungiarrontzat. Barriro bere Mungiako herriak parte-hartze aktiboa izan dau antolatu diran ekintza guztietan eta ozen aldarrikatu dau guztiok erakutsi behar dogula emakumeek jasaten daben indarkeriaren kontrako jarrera.

# Bizitzako aldaketei modu positiboan begiratu

Horixe da "Metamorfosia" tailerren bidez Itziar Gandía psikologoak emakumeei eta gizonei zabaldu gura izan deutsen mezua. Tailer horreek Udal honetako bardintasun zerbitzuak Euskal Soziologia eta zientzia politikoaren Alkarteagaz batera antolatu ditu eta Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso dabe.

Bizitzan aldaketa asko izaten doguz, eta aldaketei jarrera positiboagaz egin behar jake aurre, izan bere, hartzen dogun jarrera horren ondorio izango dira osteko arrakasta edo porrota. Aldaketek apurtu egiten dabe eguneroko erritmoa, baina bizipen bakotxak –positiboa zein negatiboa izan– asko irakasten deusku. Helburu horregaz antolatu dira "Metamorfosia" izeneko tailer biak. Bata, euren bikote-harrema galdu daben emakumeei zuzendua; eta bestea, bikotekide huts izatetik guraso izatera pasatzen diran andrazko eta gizonezkoei zuzendua.

Ikastaro honeek sano harrera ona izan dabe, bai alde kuantitatibotik eta bai kualitatibotik bere. Horren erakusgarri dogu banandutako andrazkoen tailerraren saio kopuruan egin behar izan dan aldaketra, beste 4 saio gehiago luzatu da-eta, izan bere, sano arazo bereziak dituan giza-taldea da eta, ganera, partehartzaile kopurua bere oso handia izan da.

## Una mirada positiva frente a los cambios en nuestra vida

Es la idea que la psicóloga Itziar Gandía, transmite a las mujeres y hombres que participan en los talleres "metamorfosis".que el servicio para la igualdad del ayuntamiento, ha organizado junto con Asociación Vasca de Sociología y Ciencia Política y con la subvención de la Diputación.

La vida esta sometida a cambios y debemos afrontarlos con una actitud positiva, ya que, muchas veces, de esta depende su éxito o fracaso. El cambio altera la continuidad, pero se puede aprender de cada experiencia.

Por ello se han organizado dos talleres. El primero dirigido a mujeres que han roto su relación sentimental con la persona con que convivían, y un segundo, dirigido a hombres y mujeres que pasan de ser pareja a tener el primer hijo o hija.

La acogida de los cursos ha sido muy positiva tanto cuantitativa como cualitativamente, hasta el punto de se ha decidido alargar el taller del grupo de mujeres separadas en 4 sesiones más, por su problemática peculiar y por el gran número de mujeres que se han apuntado.



# Euskeraren Nazioarteko Eguna



Abenduaren 3an, Euskeraren Nazioarteko Egunean, ekitaldi berezi eta jendetsua egin zan ilundi-ilundian Torrebillelako Areto Nagusian.

Aurtengo ekitaldiaren egiturak parte nagusi bi izan ebazan: lehenengo, "Mungia: bizimodua eta ohiturak" liburua aurkeztu zan, eta gero, Euskera Saria banatu.

"Mungia: bizimodua eta ohiturak" liburutxua Izaskun Uriagereka alkateak eta Labayru Ikastegiko Aldolfo Arejitak eta Akaitze Kamiruagak aurkeztu euskuen. Gure herriko hainbat edadekori egindako grabazino etnografikoetan oinarritzen dan liburu honek Mungiako bizimodu tradizionala zelangoa zan azaltzen deusku, ohiturak eta usuak. Baina liburua bera aurkezteaz ganera, proiektu horretan parte hartu daben mungiarrei eskerrak emotea zan asmoa. Edadekoek euren burua pantaila handian ikusteko aukerea izan eben eta gero oparitxu bana emon eutseen. Sano momentu polita eta hunkigarria izan zan.

Behin liburua aurkeztuta, "Euskera Saria" emon zan. 2008tik gora banatzen dan sari honen bidez, Mungian euskeraren alde lan egin daben eta egiten daben taldeen eta herritarren lana omendu eta eskertzen dabe Udalak eta herriak. Aurten, aurreko urteetako bideari jarraituta eta euskeraren transmisinoaren zikloa zarratzeko, Euskera Saria Mungiako euskaltegiei emon jake, Udal Euskaltegiari eta Kinttopeko AEKri hain zuzen bere.

Izaskun Uriagereka alkateak eskerrak emon eutsezan euskaltegiei urteotan –hasikerako garai latz hareetatik gaur egunera arte– egindako lan nekaezinagaitik, eta orain bizi daben zalantzaz beteko egoera honetan bere euron beharrizana daukagula adierazo eban. Kruz Amillategik eta Alberto Hernandezek hartu eben "Euskera Saria" euskaltegien izenean eta euren esperientziaren eta esperantzaren ganeko berba batzuk eskaini euskuezan.

Sariak emon ostean, Santos Intxausti Musika Eskolako Jone Larrinaga eta Ziortza Elorriaga trikitilarien musikari jarraituta alboko gelan kopautxu bat egin eta alkarregaz egoteko tartetxu bat izan eben bertaratu ziran guztiek, akabu baten horixe zan-eta ekitaldiaren helburu nagusietako bat, alkartzea eta ospatzea.

## Día Internacional del Euskera

El 3 de diciembre, dentro del día internacional del euskera se presentó el libro "Mungia: bizimodua eta ohiturak" además de dar el "Euskera Saria"

La presentación del nuevo libro, corrió a cargo de la alcaldesa Izaskun Uriagereka, Adolfo Arejita y Akaitze Kamiruaga de Labayru Ikastegia. Un libro que se basa en grabaciones etnográficas realizadas a personas mayores de nuestro municipio, que nos relatan como era la vida en Mungia además de las tradiciones y constumbres. La intención de este acto también era agradecer a los mungiarras que han tomado parte en el proyecto.

Por otra parte el "Euskera Saria" de este año se ha repartido entre el Euskaltegi Municipal y Kinttopeko AEK. La alcaldesa de Mungia ha querido agradecer la labor que desde aquellos tiempos difíciles a éstos han desempeñado y desempeñan en favor de la transmisión de nuestra lengua. Kruz Amillategi y Alberto Hernández han sido los encargados de recoger el "Euskera Saria".



# Liburu barri bi gure herri-memoria osatzeko



Abendu honetan liburu barri bi aurkeztu dira: "Mungia: Bizimodua eta ohiturak" eta "Irakaskuntza erlijiosoa Mungiako Bentades Eskolan (1909-1982)".

Gure udalerriko bizi-ohiturak eta gure historiaren parte bat hobeto ezagutzeko balio deuskuen liburutxu honeek azterlan handia eta herritar askoren laguntza eskatu daben lanak dira. Holango liburuek, herri mailakoak izan arren, balio berezia daukie danontzat: batetik, geure ingurua eta errealidadea hobeto ezagutzen eta ulertzen laguntzen deuskuelako; eta bestetik, udalerrietan egiten diran behar honeen bidez osatzen dalako gure herriaren memoria kolektiboa.

Labayru Ikastegiak egindako "Mungia: Bizimodua eta ohiturak" liburua abenduaren 3an, Euskeraren Nazioarteko Egunean, aurkeztu zan. Izenak berak dinoanez, gure herriko bizimodu tradizionala zelangoa izan dan erakusten deusku. Akabuko hamarkadetan asko aldatu da gure herria, pasadan gizaldiaren hasikeran eta erdialdean ezagutu genduan bizimodua ez da inondik inora bere gaur egun daukaguna, eta lotzen dan hori apurka-apurka galtzen doa. Mungiarren ahotik jasotako informazinoagaz (80 orduko bideo-grabazinoetan oinarritzen da; euskeraren testigantza ezin aberatsagoa) egin dan liburu honetan horixe izan da batu gura izan doguna, belaunaldiz belaunaldi, mendeetan zehar transmitidu dan euskal kulturaren tradizinoa: jaiak, baserri-munduko bizitza, lanbideak, jateko ohiturak...

Iñaki Larrinagak egindako "Irakaskuntza erlijiosoa Mungiako Bentades Eskolan (1909-1982)" liburua abenduaren 20an aurkeztu zan. Lan horretan batzen dira: batetik, Bentades ikastetxearen historiaren ganeko azalpen luze-zabala, sorrera, esku-aldaketak, hitzarmenak, obrak... hau da, izandako gorabehera guztiak; eta bestetik, egileak berak eta mungiar askok ikastetxe horretan bizi izandako bizipenak eta esperientziak, baita ikasleen zerrendak eta euron argazki ugari bere. Beraz, liburu hau interes teknikoa daukienek ez eze euren ume denporan Bentadesen ikasi ebenenek bere sano gustura irakurriko dabe.

Egite-prozesua zabala izan daben liburuon emaitza sano gozoa eta emonkorra da, izan bere, emoten deuskuen informazino zehatzaz ganera, Mungiako herritar askok prozesuan izandako inplikazinoa eta parte-hartze estimagarria ikusten da. Eskerrik asko laguntzaile horreei guztiek eskaini daben laguntzinoagaitik eta gogo onagaitik.

* Agirre Jauregiko bulegoan dagoz salgai.

## 2 nuevas publicaciones para construir la memoria de nuestro pueblo

En diciembre se han presentado 2 libros: "Mungia: Bizimodua eta ohiturak" (Mungia, modo de vida y costumbres) y "Irakaskuntza erlijiosoa Mungiako Bentades Eskolan (1909-1982)" (Enseñanza religiosa en la escuela de Bentades). Elaborado por Iñaki Larrinaga. Dos libros que narran la forma de vivir y costumbres en nuestro municipio. Se han realizado gracias a la colaboración de muchos vecinos/as de Mungia. Unas publicaciones que ayudan a conservar la memoria de nuestro pueblo.

En el proceso de elaboración de estos libros han participado muchas personas de nuestro municipio, desde aquí queremos agradecerles su implicación en el proyecto.

Las dos publicaciones están a la venta en las oficinas del Palacio Agirre.

# Kale barri bat herriko bihotzean: Euskal Pizkundea etorbidea

## Lauaxeta eta pizkundeko belaunaldiko gizon emakumeen omenetan.

Mungiako udalak Euskal Pizkudea etorbidea izena ipintzea erabaki du egun izenik ez zuen Foru eta Matxin plaza bitarteari. 2012. urtean Mungiako udalak eta herriak gogoan ditu Lauaxeta eta Euskal Pizkundea eragin zuten gizon emakumeak. Honen baitan, **Euskal Pizkundea etorbidea** izena ematea erabaki du Foruen eta Matxin plaza bitarteari, egun izenik ez duen garai bateko Gamiz bide hasierari. Izendapen berria Euskararen Nazioarteko Egunean jarri zaio, era honetara borobilduz urtean zehar Udalak eta Herriak Lauaxetari eta Euskal Pizkundearen belaunaldiari egin zaion omenaldia.

Etorbideak, gainera, urteurrenaren beste ezaugarri bat gauzatzeko parada eskaintzen digu. Talde omenaldia egin eta pertsonetan gauzatzeko aukera. Lauaxetaren heriotzaren urteurrenaren aitzakiarekin eta Lauaxetaren argitan, Estepan Urkiagarekin batera Pizkundea eragin zuten gizon emakumeak gogora ekarriz. Gisa honetan gogora ekarri nahi baitira Euskal Herri osoko gizon-emakumeak, batzuk gogoan ditugunak oraindik, beste batzuk –gehienak- memorian lausotuta galdu zaizkigunak, baina guzti-guztiak gure Aberriaren alde lan bikaina egin ebenak.



## Una nueva calle en el corazón del pueblo: Euskal Pizkundea etorbidea

### En homenaje a Lauaxeta y a los hombres y mujeres de su generación.

El ayuntamiento de Mungia ha acordado denominar Euskal Pizkundea etorbidea al espacio situado entre Foruen plaza y Matxin plaza. Durante todo el año 2012 los y las Mungiarras recordaron a Estepan Urkiaga Lauaxeta y a los hombres y mujeres de su generación que desarrollaron el renacer vasco que representó el movimiento "euskal pizkundea". En ese contexto, se ha acordado denominar Euskal Pizkundea etorbidea a la calle, antiguamente inicio del camino a Gamiz, espacio limitado por las plazas Foru y Matxin, y actualmente integrado en ellas. La nueva denominación se oficializó en un acto celebrado dentro de los actos del Día Internacional del Euskera, a modo de broche de honor a los homenajes que durante todo el año se han desarrollado en Mungia a Lauaxeta y a los hombres y mujeres que protagonizaron el renacer de Euskal Pizkundea.

El ayuntamiento y el pueblo de Mungia, con este acto recuerdan a Lauaxeta, de cuyo fusilamiento se ha cumplido este año el 75 aniversario, y pone en valor a toda la generación del renacer de la cultura vasca, denominado Euskal Pizkundea. Esta generación formada por mujeres y hombres, olvidados en muchos casos, merece tener, por su inestimable aportación a Euskal Herria un lugar destacado en nuestra memoria histórica y servir así de ejemplo, para las generaciones presentes y futuras de nuestro pueblo.

# Euskera Batzarra

Batzorde gehienakaz pasetan dan lez, Euskera Batzarra bezalako izenak irakurten doguzanean ez dogu jakiten zehatz zer dan hori. Labur esanda, Udalak herri mailan euskeraren erabilera normalizatzeko aplikatzen dauen politikaren ganean aholkuak emoten dituan batzordea da Euskera Batzarra, aholkuak emon eta garatzen dan politika horren jarraipena egiten dau.

Euskera Batzarra 2001ean sortu zan, orduko plan baten inguruan. Harrezkero, eta 2003tik gora Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari zuzenean lotuta, Mungiako Udalak euskeraren erabilera normalizatzeko garatu dituan planen eta ekimenen aholku-emoile izan da. Ibilbide gorabeheratsua izan dau urteotan, hasikeran nahiko dinamikoa eta aktiboa izan zan arren, apurka-apurka, bai tamainuagaitik eta bai euki dauen batzar kopuruagaitik (2/3 urtean), eraginkortasuna galtzen joan da eta azkenean, 2011n, Euskera Foroak egitea eta batzordea barriztatzea erabagi zan.

Udalbatzak 2012ko zemendiaren 30ean aho batez onartu dauen Euskeraren Aholku Batzordeak lehengoaren aldeak honako barrikuntzak dakarz:

• Talde bi egongo dira: batetik, batzorde iraunkorra, askoz bere txikiagoa (lehen 25 bat lagunekoa zan eta orain 12koa) eta euskalgintzari zuzenago lotua, ez lehengoa bezain zabala. Eta bestetik, gaikako batzordea, eguneroko herriko bizitzako arlo guztietako jendea batuko dauena. Talde honetako jendeak batzorde iraunkorraren batzarretan hartuko dau parte, gaiaren arabera, eta gero, urtean behin edo bitan batzartuko da.

• Zenbat batzar urtean?: Batzorde iraunkorra 8 bat bider batuko da urtean eta gaikako batzordea urten 1en edo 2tan (gehi iraunkorretakoan izango daben parte-hartzea).

Aldaketa honeen helburua talde dinamikoagoa eta eraginkorragoa lortzea da, herrian euskeraren normalizazinoak dituan erronkei ahalik eta modu aktiboenean ekingo deutsona, eragilea eta partehartzailea.

## Consejo Asesor del Euskera

"Euskera Batzarra" es la comisión que aconseja sobre la política que aplica el ayuntamiento a nivel del municipio para la normalización del euskera. "Euskera Batzarra" nació en 2001 y desde el 2003 está relacionada directamente con el plan general para el impulso del euskera y ha sido la comisión que ha aconsejado al Ayuntamiento en la normalización para la uso del euskera.

En 2011 se decidió realizar foros sobre el euskera y renovar "Euskera Batzarra".



# 2012ko Euskeraren Nazioarteko Eguna dala-eta, Mungiako Udalbatzako talde politiko guztiek egindako Adierazpen Instituzionala

Euskeraren erabileraren normalkuntza prozesua abiatu zanik hona aurrerapausu handiak egin dira, batez bere legediari, transmisinoari eta erabilera esparru barriak sortzeari jagokonez. Halanda bere, normalkuntza prozesu hori guztiz osatu arte, kontu handiz jagon behar da, izan bere, eten barik aurrera egin ezean, egindako guztian atzera egiteko arriskua dago-eta. Euskeraren normalkuntza izaki bizidun baten modukoa da, testuinguruak eragin zuzena dauka bere garapenean, azken hamarkadetan izandako aldaketek argi erakutsi deuskuenez.

Gaur egun bizi dogun krisiak eragin zuzena dauka bizitzako arlo guztietan eta, zer esanik ez, euskeran bere bai, irakaskuntzan, plangintza barrietan, euskerazko komunikabideetan, produktuen erosketan eta beste hainbat arlotan. Sano une kritikoa da, baina ezin dogu onartu krisia normalkuntza bidean geldi egoteko edo atzera egiteko atxakia modura erabiltea.

Hori dala-eta, inoiz baino ahalegin sendoagoa egin behar da prozesu horri eusteko, batetik, erakundeek, normalkuntzaren zutabe diran arloei sendo eutsita eta aurrerabidean lan-ildo barriak bilatu eta landuta, lehengoari euste hutsak atzera egitea baino ez leuke ekarriko-eta. Eta bestetik, norbanakoek, izan bere, hizkuntza ondare kolektiboa (Euskal Herriko herritar guztiona) izateaz ganera, ondare personala bere bada, eta gutako bakotxak daukan jarrerak eta hizkuntza hautuak eragin zuzena dauka hizkuntzaren bizi-indarrean.

Hori guzti hori kontuan hartuta **Mungiako Udalak zera adierazoten dau**:

1) **Mungiako Udalak aurrerantzean bere orain arte euskeraren normalkuntzan egindako lanari eutsi egingo deutso, lan horretan gehiago sakontzeko, bai sensibilizazinoan, bai ezagutzaren transmisinoan eta bai erabileran.**

2) **Konpromisoa hartzen dau normalkuntza prozesuan aurrera egiten jarraitzeko** eta, danon alkartasunagaz eta ahalik eta adostasunik handienagaz, **bide barrriak jorratzeko eta bilatzeko.**

3) Aurreko konpromiso horreek behar bezala beteteko, Udalak konpromisoa hartzen dau jagokon arloan **plangintza barria eta indartsua diseinatu eta garatzeko -erabilera ardatza dala- bere esku dagozan baliabide personal eta ekonomikoak jarrita.**

4) **Dei egiten deutse herriko ordezkariei, herri zerbitzariei, eragile sozialei eta herritar guztiei, bakotxak bere inguruan ahal dauen ekarpena egin deion eten bako prozesu honi**, gure hizkuntzaren erabilera norbanakoen esku dago eta.

5) Era berean, dei egiten deutse herritar guztiei egunotan asmo honen alde egingo diran ekitaldietan parte hartu daien.

Mungian, 2012ko zemendiaren 19an.



# Apoyo a los emprendedores: lur barriak saria



Desde **Mungialdeko Behargintza** se está **apoyando a las personas con iniciativas empresariales** para crear negocios sólidos y con perspectivas de futuro. Para ello, se acompaña a la persona emprendedora desde el inicio de la idea hasta la puesta en marcha del negocio. Además de contar con el asesoramiento para conocer la viabilidad de su futuro negocio también cuentan con la posibilidad de recibir formación para gestión y desempeño de las tareas asociadas a la puesta en marcha y desarrollo de su actividad profesional. Concretamente, **en el año 2012 se han atendido 83 iniciativas empresariales y se han impartido tres acciones formativas en materia de gestión empresarial en los que han participado 44 personas.**

A su vez, **se han creado 20 empresas** con el apoyo técnico de Mungialdeko Behargintza, **gracias a las cuales se han generado 27 puestos de trabajo.**

Además del apoyo en la realización del plan de empresa y el estudio de viabilidad económica de la iniciativa, los emprendedores y emprendedoras, también cuentan con la posibilidad de tomar parte del **concurso de iniciativas empresariales "Lur Barriak"** impulsado por Mungialdeko Behargintza junto con los centros de Leioa, Erandio, Bermeoaldea y Gernikaldea con el fin de favorecer la cultura emprendedora, aprovechar sinergias y promocionar de una manera más efectiva la importancia de la figura del promotor como generador de desarrollo económico y de empleo.

En este concurso **han tomado parte 10 iniciativas empresariales** creadas entre el 1 de julio de 2011 y el 20 de julio de 2012 **con el apoyo de Mungialdeko Behargintza.** De este modo, el Behargintza **ha otorgado un premio de 2.000€** a la mejor iniciativa empresarial comarcal que ha recibido la tutorización del centro en el desarrollo del itinerario de puesta en marcha del citado negocio.

En la edición del año 2012 el premio comarcal ha recaído en el negocio **"Lur´ta ur"**, iniciativa empresarial liderada por el mungiarra Jon Larrazabal Lavin.

**"Lur´ta ur"** se presenta como un elemento más de la renovación del tejido comercial que está experimentando Mungia adaptándose a los nuevos hábitos de consumo, estando ligado a la práctica del deporte activo en contacto con la naturaleza.

## Ekintzaileei laguntza: lur barriak

Sari honetan parte hartu dute 2011ko uztailaren 1etik 2012ko uztailaren 16ra bitartean **Mungialdeko Behargintzaren laguntzarekin sortu diren enpresak.**

Mungialdeko Behargintzak eskualdeko enpresa onenari **2.000 euroko sari bat eman dio.** Aurtengo eskualdeko proiektu irabazlea "Lur´ta ur" denda izan da, Jon Larrazabal Lavin mungiarrak sortutako enpresa.

"Lur´ta ur" dendan ehizako gauzak eta arrantza atala, kirol erropa eta armak topa dezakezu. Denda hau Mungiako Elorduigoitia kale komertzialean kokatuta dago.

# Gala del comercio



El 18 de diciembre se celebró en Mugire Txokoa la tradicional Gala  Navideña de Comercio anual. Organizada **por la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia, con la colaboración de Mungialdeko Behargintza**, llegó cargada de novedades y premios, congregando a comerciantes y vecinos/as de Mungia.

La gala comenzó con la entrega de los cuatro premios correspondientes a la campaña Lau dendak llevada a cabo por la Asociación durante el mes de Noviembre, y acto seguido se sortearon cuatro cestas de Navidad entre todas las personas que realizaron sus compras con la Tarjeta Mungia.

## CONCURSO DE ESCAPARATES

El plato fuerte del evento, fue la entrega de premios del Concurso de Escaparates. Este año **han participado 25 tiendas de Mungia**. El concurso ha sido más participativo, dando la oportunidad a los vecinos y vecinas de Mungia de votar a su escaparate favorito vía facebook o de los buzones de Mungialdeko Behargintza y de  la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia.

Se entregaron **seis premios diferentes**. Por una parte, se quiso premiar a **las personas que participaron en la votación, sorteando entre todas ellas tres cheques otorgados por Mungialdeko Behargintza, cada uno de 200€, y canjeables en los comercios participantes hasta el 31 de enero de 2013.**

Con los votos de los/as vecinos/as de Mungia, se premió **al escaparate favorito del público**, al que se hizo entrega de la ya tradicional "Mungiako Otzara" que reparte Mungialdeko Behargintza y con el diploma correspondiente al premio otorgado por la asociación. El escaparate que más ha gustado a los y las mungiarras ha sido el de la tienda infantil **Pekes**.

**Con los votos de un jurado** formado por cuatro miembros, se escogió a los **tres mejores escaparates** y aquel con el mejor Olentzero. Miembros de la asociación hicieron entrega del tercer y segundo mejor escaparate del concurso del 2012, que han sido **Gabeta Cotton** y **Gure Lurreko** respectivamente y la alcaldesa, Izaskun Uriagereka fue quién entregó el premio al mejor escaparate otorgado a **Expert Trobika** y **el premio "Olentzero"** que ha recaído en el comercio **Remit**.

Una vez entregados todos los premios, se finalizó la gala con un lunch del bar Iker.

## Merkataritza Jaialdia

Pasadan abenduaren 18an, Mungiako Merkatari eta Hostalarien Elkarteak, Mungialdeko behargintzaren laguntzagaz antolatutako Mungiako Merkataritza Gala ospatu zan Mugire Txokoan. Barritasunez beteta heldutako jai honetan, pertsonalidade ugari bildu zan. 25 izan dira aurten euren erakusleihoak dotore dotore apaindu lehiaketan parte hartu daben saltokiak.

Baia saltokiez gain, aurten Mungiako herritarrei be emon zaie lehiaketa honetan parte hartzeko aukera, euren eskaparate gogokoenaren alde bozkatzeko aukera emonez, eta trukean, 200€tako hiru txekeraren zozketan sartuz.

Era honetara, 6 izan ziren banatutako sariak: alde batetik, aurten nobedade izan diren sariak: batetik, Mungialdeko Behargintzak eskainitako hiru txekeak. Euron hiru irabazleek, urtarrilaren 31 bitartean, baleok lehiaketan parte hartu daben saltokietan gastatzeko aukera izango dabe.

Eta bestetik, herritarrentzeko erakusleiho ederrena izan duen saltokiak, Mungialdeko Behargintzak banatzen dauen otzara, bertoko produktuez bete beteta eta Mungiako Merkatarien eta Hostalarien Elkarteak banatzen dauen diploma jaso zituen.

Jarraian, lehiaketa honetan ohikoak diren lau sariak banatu ziren. Alde batetik, Olentzero dotoreenari saria, eta bestetik, hirugarren, bigarren eta lehenengo erakusleiho onenei saria.

Irabazle guztiek euren sariak jaso ondoren, Iker tabernak prestaturiko lunch batez gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek.

# Nuevo ambulatorio



La construcción del nuevo ambulatorio de Mungia, empieza a dar sus primeros pasos. Realizada ya la licitación de las obras, por parte del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y adjudicada a la empresa Cycasa, Canteras y Construcciones, S.A., las obras han comenzado el día cuatro de enero con la toma de datos "in situ" y el acta de replanteo del edificio. El nuevo centro se ubicará donde actualmente se encuentra el pabellón de ganado del ferial y contara con planta sótano, planta baja y planta primera, ocupando una superficie total de 3050 m².

El edificio se muestra al exterior mediante una fachada cerrada, opaca con grandes huecos de ventanas que permiten la iluminación de los principales espacios y en el interior, un patio totalmente acristalado, permite la iluminación de las zonas de espera. En la planta sótano se albergara el aparcamiento que dará servicio al centro, sumándose a los ya existentes en la superficie.

Con esta nueva construcción se trata de ir adecuando y mejorando las infraestructuras existentes en el municipio en el ámbito de la Sanidad y posibilitará el traslado al mismo de los servicios que actualmente se ofrecen tanto en el edificio de Andra Mari, como en el local destinado a Rehabilitación de la calle Atxurizubi.

El presupuesto del proyecto asciende a la cantidad de 2.288.080 € y el plazo previsto de las obras es de 18 meses.

Paralelamente el Ayuntamiento, debe ejecutar una serie de obras para dejar el solar dispuesto para la cimentación del edificio: se debe realizar la modificación de los trazados del suministro eléctricos y de abastecimiento de agua además del derribo del actual pabellón del ferial, que se llevara a cabo tras la celebración de la Feria de San Antontxu.

## Anbulategi barriko lanak hasi dira

Aurreikuspenen arabera, anbulategi barria egiteko obrak urtarrilaren 4an hasi dira. Obra horreek Mungiako Udalak itxitako lurretan egingo dira eta 3.050 m²ko azalerea hartuko dabe.

Eraikin barria egiten danean zarratu egingo da gaur egun Andra Marin dagoan anbulategia eta bertan dagozan espezialidade guztiak barrira pasatuko dira; baita gaur egun Atxurizubiko zentroan dagoan errehabilitazino zerbitzua bere.

Proiektuaren aurrekontua 2.288.080 €koa da eta obrak 18 hilabetean amaitzea aurreikusi da.

Parean, Udalak aldatu egin beharko ditu ur eta argi-indar hornidurarako trazadurak eta bota egin beharko dau ferialekuan dagoan pabilioia; hau San Antontxuetako Feria Nagusia pasata ostean izango da.



# Obras en Garraketa

Garraketa, la zona de Mungia situada al final del casco urbano, en la salida de Mungia hacia el Bº de Billela, por el cementerio de Berteiz, se encuentra afectada por el cauce del Butroi ibaia y el pequeño cauce del Trobika erreka que, cada vez que se producen fuertes lluvias provocan inundaciones, como las últimas acaecidas en los días 4 y 7 de noviembre de 2011.

El Ayuntamiento de Mungia tiene previsto realizar obras de mejora de la red de pluviales en la zona de Garraketa y para ello ha desarrollado un Proyecto que consiste en:

1. Limpieza del arroyo Trobika y sus cunetas, eliminando la vegetación y regularizando su sección.

2. Nueva canalización de tuberías de mayor diámetro de las actuales para la evacuación de aguas de lluvia en la zona de Garraketa.

3. Nueva cuneta que descarga en el arroyo Trobika.

4. Aumento del número de drenajes transversales en el camino del Consorcio.

5. Renovación del puente con aumento de la Sección.

Las obras del proyecto tienen un coste aproximado de 177.053,99 €, subvención obtenida de la Diputación Foral de Bizkaia en el Capítulo de Imprevistos, en este caso, originados por catástrofes naturales.

Con esta solución inicial se pretenden mejorar el nivel de inundabilidad y así minimizar los problemas que causa el agua en la zona.

## Garraketan euri-urak batzeko sarea barriztuko da

Laster Mungiako Udalak Garraketa aldean hobekuntza lanak egingo ditu, uriolen arriskuari aurre egiteko. Herriko gune hori Butroi ibaia eta Trobika erreka artean dago eta euri asko botaten dauenean, urez beteten da.

Proiektu hau gauzatzeko, Mungiako Udalak 177.053,99 euro. inbertiduko ditu. Diru kopuru honen parte handi bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza bateri esker lortutakoa da.



# Txakurrak soltuan eroateko lekuak

Animaliak eukitea eta babestea arautzen dauen Udal Ordenantzak ezartzen dauenez, Udalaren esku dago txakurrak soltuan (baina kontrolatuta) eroan leitekezan gune batzuk markatzea herrian, txakurrek euren giharrak eta gorputza osasuntsu euki daiezan.

Egin diran foroetan, Mungiako erdigunean dagozan espazio publikoek horretarako eskaintzen dabezan aukerak aztertu dira, beti bere, animalien eta mungiarren arteko alkarbizitza baketsua bermatuta.

Aukera guztiak aztertu ostean, konpainia-animaliak soltuan eroateko 5 gune markatuko dira herrian. Eurotako batzuk egun osoan erabili ahal izango dira (Larreta, Landetxo eta Olalde), beste batzuek, ostera, ordutegi jakin bat eukiko dabe (Uriguen eta Torrebillela).



## Espacios para uso de los perros sin correa

En la Ordenanza municipal de Tenencia y Protección de los Animales de compañía se establece que el Ayuntamiento podrá definir espacios para uso de los perros de forma libre y controlada, con el objetivo de que estos puedan ejercitarse.

En diferentes foros se han analizando las posibilidades que ofrecen para ello los espacios públicos del casco urbano de Mungia, buscando alternativas que faciliten la convivencia entre los animales de compañía y los mungiarras.

Se van a habilitar y señalizar 5 zonas en diferentes puntos de Mungia para poder pasear sin correa a los animales de compañía, en unos casos para hacer uso de los mismos a cualquier hora del día (Larreta, Landetxo y Olalde) y en otros con horarios limitados (Uriguen y Torrebillela).



# Hacia el III Plan de Acción Ambiental para la Sostenibilidad de Mungia



A lo largo del año 2012 se ha ido avanzando en la redacción del III Plan de Acción para la Sostenibilidad de Mungia (PAL). Está finalizada la fase de diagnóstico, documento que se podrá consultar próximamente en la web municipal (www.mungia.org) y para cuya elaboración se ha trabajado a nivel de la ciudadanía a través de los foros de participación de la Agenda Local 21 y como Ayuntamiento tanto a nivel técnico como político.

Actualmente se está trabajando en la formulación de las actuaciones a incluir en el plan de acción, de cara abordar los retos definidos en la fase de diagnóstico y mejorar aquellos aspectos más débiles. El documento se está estructurando en torno a 8 grandes ámbitos de análisis: agua, residuos, energía, calidad del aire y acústica, planeamiento urbano y ordenación del territorio, gestión ambiental, movilidad, y educación para la sostenibilidad y cultura participativa.

Una vez elaborado el documento base de actuaciones, a principios del año entrante, se llevará al foro de participación de la Agenda Local 21 para incorporar la visión y las aportaciones de los mungiarras que se animen a participar en el mismo.

El horizonte temporal del III PAL es de cuatro años desde su finalización y aprobación en pleno, prevista para el primer trimestre de 2013 y recogerá las actuaciones prioritarias a desarrollar en este periodo, así como los objetivos cuantitativos y cualitativos que se esperan alcanzar.

Para acometer las actuaciones planteadas y lograr dichos objetivos es imprescindible la corresponsabilidad y la colaboración de la ciudadanía, sobre todo en aquellos aspectos relacionados más directamente con nuestra vida cotidiana.

## Mungiako Iraunkortasunerako III. Ekintza Planaren diseinu-lanak

2012an zehar aurrera-pausu handiak egin dira Mungiako Iraunkortasunerako III. Ekintza Planaren prestaketa-prozesuan. Diagnostiko fasea oraintsu amaitu da eta berorren ganeko dokumentua laster kontsultatu ahal izango da www.mungia.org web-orrian. Dokumentu hori egiteko, Tokiko Agenda 21eko foroakaz eta Udalagaz egin da behar, bai maila teknikoan eta bai maila politikoan.

Orain ekintza planean diseinatu eta sartu beharreko jarduerak zehazteko fasea da, diagnostikoan ahultzat eta hobetu beharrekotzat identifikatu diran puntuetan ahalegin berezia eginda. Ekintza Planaren ganeko txostena 8 eremutan oinarrituko da: ura, hondakinak, energia, airearen kalidadea eta akustika, hirigintza plangintza eta lurraldearen antolamendua, ingurumenaren kudeaketa, mugikortasuna, iraunkortasunerako heziketa eta kultura parte-hartzailea.

Ekintza guztiak batzen dituan oinarrizko dokumentua amaitutakoan, 2013ko hasikeran, parte-hartze forora eroango da bertan batzen diran mungiarren eretxia eta ekarpenak jasoteko.

Ekintza horreek guztiak gauzatu eta helburuak lortu ahal izateko, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea, batez bere, gure eguneroko bizitzagaz lotura estuena daukien gaietan.

# Erreka Astea



Zemendiaren 12tik 18ra bitartean "Butroi Ibaiaren Astea" ospatu zan Mungian. Hainbat ekintza antolatu ziran, besteak beste, hitzaldiak, kanoa-ibilaldiak, tailerrak eta "Ibaialde" erakusketa. Eta ekintza horreez ganera, zemendiaren 14an "Erreka Eguna" ospatu zan.

"Erreka Astea" 2004an antolatu zan lehenengoz, "Errekaren Eguna" tarteko zala. Harrezkero, Mungiako ikastetxeak izan dira urtero-urtero egin dan kanpaina honen protagonista nagusiak, eta bederatzi urteotan hainbat ikasle belaunaldik hartu dabe parte ekintzotan.

Aurtengo "Erreka Astea"n, Larramendi Ikastolako, Laukariz Eskolako eta Bentades Ikastetxeko ikasleak etorri ziran Mungiatik pasatzen dan Butroi ibaiaren bazterreraino, erreka ikertu eta mantentze lanak egiteko. Eskularruak jantzi eta ibaiertzak garbitzen eta bertan egozan hondakinak batzen ibili ziran. Garbiketa-lanak amaitu ostean, bost ikasleko taldeak antolatu ziran, ibaiko urak aztertzeko, "Ibaialde" kanpainan banatzen diran materialak erabilita; pHa, fosfatoak, nitratoak, oxigeno disolbatua eta ganerako parametroak neurtu ebezan, inguruko biodibertsidadea birpasatzeaz ganera.

Aurten bere, ibaiertzak garbitzeko eta ikasleak jagoteko, Andui Mendigoizale Taldearen laguntza euki dogu. Eta ikasleak leku batetik bestera eroateko eskaini euskuen laguntza ezinbestekoa izan dala aitortu behar dogu.

Goizaren amaieran, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz, umeek 100etik gora arrankari bota ebezan Butroi ibaira, arrain horrek aurrerantzean bere gure errekan bizilekua izaten jarraitu daian. Ekimen horretan Gorabideko Eguneko Egoitzak hartu eban parte.

Erreka Eguneko ekintzetatik aparte, Butroi ibaiaren inguruko biodibertsidadea ezagutu eta jagoteko antolatu zan jarduera bere aitatu beharra dago. Jarduera berezia izan zan, izan bere, bertaratu ziranek –arbola-adarrak, harriak eta lurra erabilita– narrasti eta anfibioentzat hainbat babesleku prestatu ebezan.

## Erreka Astea

Del 12 al 18 de noviembre hemos celebrado en Mungia la "Semana del Río Butroi". Organizándose muchas actividades como charlas, paseo sen piragua talleres y la exposición "Ibaialde", además de la celebración del "Día del Río" el día 14.

Desde 2004, cada año los centros escolares de nuestro municipio han sido los verdaderos protagonistas de la celebración. En la "Erreka Astea 2012" han participado los escolares de Larramendi Ikastola, Laukariz Eskola y Bentades Ikastetxea realizando labores de investigación y limpieza del Butroi. Además este año también ha colaborado en la limpieza "Andui Mendigoizale Taldea"

Al finalizar la jornada los estudiantes soltaron en el Butoi más de 100 peces, para que estos vivan a partir de ahora en nuestro río.

# Declaración institucional en contra de la utilización de la "Fractura hidráulica" para la extracción de hidrocarburos



La técnica de la "**fractura hidráulica**" o "**fracking**" consiste en la extracción del gas no convencional (contenido en rocas poco porosas) introduciendo grandes cantidades de una mezcla compuesta por agua, arena y productos químicos, que se inyecta a alta presión a través de perforaciones realizadas en el terreno a gran profundidad y en las que se provocan explosiones para romper la roca.

Es una técnica que se ha utilizado sobre todo en Estados Unidos, donde se ha asociado a contaminación de aguas superficiales y subterráneas, impactos paisajísticos, contaminación del aire y otras afecciones medioambientales.

**En Euskadi actualmente hay concedidos diversos permisos de investigación** para evaluar la viabilidad de extracción de hidrocarburos mediante fracking, que abarcan prácticamente todo el territorio, entre los que se encuentra el denominado "**Géminis**", concedido por el Ministerio de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Español a la empresa Frontera Energy Corporation. **Este permiso abarca las comarcas de Mungialdea, Uribe Kosta y una parte del Txorierri y Busturialdea-Urdaibai.**

Ante esta perspectiva, en el Pleno ordinario del mes de noviembre, **la Corporación del Ayuntamiento de Mungia ha aprobado por unanimidad una Declaración Institucional en contra de la utilización del fracking**, que previamente ha sido contrastada y consensuada con asociaciones ambientalistas del Mungia, **en la que se insta al Gobierno del Estado a que deje en suspenso la autorización de investigación Geminis y se solicita al Gobierno Vasco que desarrolle una normativa que prohíba la utilización de la técnica del fracking para la extracción de gas.**

## Hidrokarburoak aterateko erabilten dan haustura hidraulikoaren teknikearen kontrako adierazpen instituzionala

"**Haustura hidraulikoa**" teknikearen bitartez, urez, hareaz eta produktu kimikoz osotutako nahastura kopuru handia txertatzen da lurzoruan, harriak eta hatxak apurtzeko eta azpian dagoan gas naturala edota beste gas batzuk edo likidoak aterateko.

Hainbat kasutan egiaztau ahal izan da lurzoruak eta lurrazpiko zein gainazaleko urak kutsatuta dagozana, gasen eta elementu kimikoen eraginez. Horrezaz gainera, beste ondorio batzuk be badaukaz: ur asko kontsumiduten da, eragin sakona sortzen da paisajean, zarata eta mikro-seismo ugari dagoz, aidea kutsatu egiten da eta ondo kaltegarriak sortzen dira gizakion osasunerako (toxikoak eta kaltegarriak diran produktu kimikoak erabilteagaitik).

**Euskadin, ustiapen horretarako baimenak emon dauz Estatu Espainoleko Gobernuak. Euren artean, "Geminis" bera. Baimen horren barruan, Mungialde, Uribe Kosta, Txorierri eta Busturialdea-Urdaibaiko zati bat dago sartuta.**

Hori guztia ikusita, **Udalbatzak** hidrokarburoak aterateko erabilten dan **haustura hidraulikoaren teknikearen kontrako adierazpen instituzionala onartu eban aho batez.**

# "Landetxo Goikoa" atrae a 30.000 personas en 2012

IZENADUBA BASOA como proyecto cultural de ocio se ha convertido en estos cuatro años en todo un referente. **Entre los 30.000 visitantes anuales los hay de todos los lugares y edades de la geografía vasca**: adultos, niños/as, centros escolares, asociaciones, familias... un perfil amplio y variado de público que acude a Mungia.

Izenaduba Basoa realiza visitas dirigidas al público infantil y familiar, realizando una oferta lúdico-didáctica que trata de acercar a la comunidad escolar la cultura, tradición y la mitología vasca.

**Desde que Izeanduba basoa abrió sus puertas son más de 56.000 escolares de educación infantil, primaria, secundaria y bachiller de todo el País Vasco**, los que han participado en los programas didácticos.

El caserío Landetxo Goikoa está considerado uno de los ejemplares más arcaicos de vivienda rural existentes en el País Vasco. Esta construcción data posiblemente del siglo XVI y se clasifica dentro de los denominados caseríos gótico-renacentistas.

En Mungia hemos realizado un área de **estrategia turística** que ha diseñado proyectos que ayuden a dibujar el futuro de nuestro destino turístico. Queremos adecuarnos a las nuevas exigencias y condiciones del mercado, así como consolidar un sistema turístico competitivo y sostenible orientado al incremento de los beneficios sociales y económicos de Mungia.

Ejemplo de ello ha sido la **visita Slow, que desde el 2010 han sido más de 1.500 personas las que han disfrutado de una visita completa a Mungia** realizando una visita guiada al centro histórico visitando los principales lugar de interés cultural y turístico, realizando una hamaiketako y tiempo libre para poder comprar productos que ofrece nuestro municipio, una comida tradicional y la visita al caserío de Landetxo Goikoa.

Desde su inauguración en diciembre del 2007 hasta finales del 2012, **más de 170.000 visitantes** han pasado por las instalaciones de Izenaduba Basoa en Mungia, todo un récord de asistencia para una instalación de estas características en los tiempos que corren.

En estos cuatro años el 35% de las visitas corresponden a centros escolares, asociaciones y similares. Y el 65% restante son visitas de particulares y familias.

El total anual asciende a más de 30.000 visitantes, se trata de un dato relevante que ha superado las expectativas iniciales, convirtiendo a Izenaduba Basoa en el parque temático con mayor afluencia de Euskal Herria.

Aún así, seguimos trabajando y vemos necesario diseñar nuevas ofertas y estrategias para acceder a nuevos grupos y clientes potenciales ampliando así nuestro marco de actuación a otros colectivos y públicos.



## Landetxo Goikoak 30.000 lagun erakarri dauz Mungiara igaz

Pasadan **2012 urtean Olentzeroren baserriak 36.060 bisitari** izan ebazan. Bisitari partikularrak 24.808 izan ziran. 2011an baino askoz gehiago (34.045). **2007 ko abenduan zabaldu zanetik 170.000 bisitari baino gehiago** ekarri dauz Mungiara Landetxo Goikoak.

# Mungiako lapikoko egunaren hirugarren edizinoa

Urtarrilaren 19an "Lapikoko Eguna: Euskal Herriko Indada-Txapeleketa"ren hirugarren edizinoa egingo da Mungian.

Aurreko edizino bietan lehiaketa hau domekaz egin da, 2013an, ostera, zapatuz egingo da, parte-hartzaileak eta ikusleak lasaigo ibili daitezan eta beluagora arte lotzeko modua izan daien.

Horretaz ganera, jai-giroa luzatu ahal izateko, plaza bien artean mahaiak eta jesarlekuak iminiko dira lagun-taldeak eurek prestatutako indabak jaten gelditu daitezan (inskripzino-orrian bertan egin behar da eskaria).

Sukaldaritza txapelketa hau, igaz bezala, Txispeleta Eskaut Taldeak antolatuko dau Mungiako Udalaren babesagaz eta Kutxabank-en laguntzagaz.

Izena emoteko akabuko eguna 2013ko urtarrilaren 15a izango da. Inskripzino-orriak parte-hartzaileen eskura dagoz www.mungia.org web-orrian; orri hori bete ostean, emailez (astiune@astiune.com) edo faxez (946745262) bialdu ahal da edo, ostantzean, Agirre Jauregian aurkeztu (Aita Elorriaga 1, Mungia).

Lehiaketa egunean bertan bere emon lei izena baina eskertuko geunskizue aldez aurretik egitea, bazkarirako lekua gorde ahal izateko.

Txapelketa hau Matxin plazan eta Foruen enparantzan egingo da.

Erabili ahal izango diran osagaiak: Indaba gorria (Euskal Herriko lurralde historikoetakoa; tolosanea, baltza edo pintoa), patatea, berdurak (piper txorizerua bere bai), urdaia eta txorizoa. Ezingo da erabili ez indaba zuririk ez pardinarik. Indabak lapikoan edo kazulan egin beharko dira, eta bertan aurkeztu. Gitxienez bere kilo bat indaba egin beharko da. Butanoa erabiliko da eta parte-hartzaile bakotxak berak ekarri beharko dau indabak egiteko behar dauen guzti-guztia.

Sari-banaketa 17:00ean egingo da. Mungia nazioarteko slow-sarearen kide da eta lankidetza estua garatzen dau bertoko produktuak babestea eta euron zabalkundea egitea helburutzat daukan Slow foodeko Bilbao-Bizkaia Convivium-egaz. Lehiaketa honen bidez, gure inguru honetako indabeak daukan kalidadea aldarrikatu eta ezagutzera emon gura da.

Txapelketaz ganera, goizeko 11:00etatik gora Gizaberri Alkartasun Taldeak Mungiako indaba-errazinoak salduko ditu. Batutako dirua 3. munduko proiektu batetarako izango da.

Informazino gehiago:
www.mungia.org




## 3ª edición del "Lapikoko Eguna"

El 19 de enero celebramos la 3º edición del "día del Lapikoko-Campeonato de Euskal Herria de alubias" en esta ocasión la cita será en sábado para poder así alargar más la jornada.

Este concurso gastronómico está organizado por Txispeleta Eskaut Taldea con el patrocinio del ayuntamiento de Mungia y la colaboración de Kutxabank.

El plazo de inscripción es el 15 de enero. Las hojas de inscripción se puede descargar en www.mungia.org y una vez rellenadas se deben de enviar por e-mail a astiune@astiune.com o por fax al 94 674 52 62 o también se pueden entregar en Agirre Jauregia (Aita Elorriaga, 1)

El concurso será en Matxin plaza y Foruen enparantza y la entrega de premios a las 17.00h. Mungia es miembro de la red internacional slow y está comprometida con la protección de nuestros productos y tiene como objetivo la promoción de estos. Mediante este concurso se quiere promocionar la calidad de nuestra alubia.

Además: Gizaberri Alkartasun Taldea, venderá raciones de alubia de Mungia (11.00h)

El dinero recaudado será para un proyecto del tercer mundo.

+ info:
www.mungia.org

# Urteko azken zarata

Urtean zehar, ohikoa denez, kontzertu ugari prestatzeaz gain Atzekaldeta fest Mungia antolatu zuten, uztailean. Nabarmentzen ari diren bertoko eta kanpoko talde ugari ikusteko eta gozatzeko aukera eman ziguten.

Oraingoan, urteari amaiera emateko azaroan eta abenduan zehar **3 ekintza potente** eskaini dizkigute herriko gazte eta ez hain gazte direnentzat.

**Azaroaren 24ean**, "El monstruito" produktorearekin batera Torrebillea aretoko zinea ikuslez gainezka jarri zuten. Bertan, "**Euskal Okela**" izeneko laburmetrai saioa eskaini ziguten. %100 Euskal giza-haragiz egindako gore eta zombie laburmetraiez osatua zegoen, haietan parte hatzen zuten aktore, zuzendari, makillatzaile, ... guztiak euskaldunak baiziren, labeldun produktuak beraz. Asier Abio, zuzendari mungiarrak, "Zapatu light" laburmetraiarekin saioari amaiera aproposa eman zion, Mungian produktu ona dagoela erakutsiz. Laburmetraiak amaituta urreratu ziren ikusleentzat luntx bat izan zen Dj batek musika jartzen zuen heinean.

**Abenduaren 1ean, zapatuan, Mugire txokoan "A thousand words"** Hardcore estiloko Portugaleko taldea aritu zen bilboko "**Fucking party of violence**" (trash metal) taldeagaz batera. Portugaldarrak euren bira Mungian amaitutzat jo zuten. Bira honetan zehar Alemania, Ingalaterra, Frantzia,... bezalako herrialdeetan ibili izan dira.

**Abenduaren 11an**, asteartea izan arren, Gaztegunean kontzertua antolatu zuten. Honako honetan "**Noizean Behin**" (rock metal) talde gatikarraren ondoren "**Vera Cruz**" (hardcore metal rock) Frantziako talde ezaguna izan genuen. Aipatzekoa da, azken talde honek Monster edari konpainia duela babesletzat. Hauek ere bira europarrean zehar daudela ekarri dira Mungiara. Kontzertu bi hauetara Bizkaia kanpotik bizi den jendea ere erakartzea lortu zen.

Urtea doinuz agurtzeko azken ekintza gazteguneko ate ireki ekintzaren barne izan zen. **Abenduaren 28an**, **Azken zarata** elkartearen laguntzarekin, **Mungiakoa den Dj** gazte baten saioa antolatu zuten.





## Urteko azken zarata

Además de organizar diferentes conciertos durante el mes de julio en el marco de "Atzekaldea Fest Mungia", con grupos locales y de fuera que sobresalen en el panorama musical, durante los meses de noviembre y diciembre, el grupo Azken Zarata ofreció, con la colaboración del Ayuntamiento, 3 actividades muy potentes para jóvenes y no tan jóvenes de Mungia:

El **24 de noviembre**, tuvimos **cortometrajes gore y de zombies 100% de Euskadi** (maquilladores, directores,...). El director mungiarra Asier Abio puso fin a la jornada con el cortometraje "Zapatu light", demostrando que en Mungia existe también un buen producto, con label local.

El **sábado 1 de diciembre** y en el Txoko Mugire tuvimos la visita del grupo de Hardcore portugalujo "A thousand words" y de los bilbainos "Fucking party of violence" (trash metal). Los de Portugalete finalizaban su gira en Mungia, después de actuar en Alemania, Inglaterra, Francia,...

El **11 de diciembre**, hubo un concierto en el Gaztegune, con "**Noizean behin**" y los franceses de "**Vera cruz**". Estos dos conciertos atrajeron también a gente de fuera de Bizkaia.

Para finalizar el año, desde el Gaztegune se ha organizado un concierto dentro de su actividad de puertas abiertas. Fue el **28 de diciembre** con la colaboración de la propia Asociación "Azken Zarata" y de un joven Dj de Mungia.




# 2013 EGUTEGIA CALENDARIO 2013

## Mungiak egutegi solidario barria atera dau 2013rako

Aspaldiko urteotan egin dogun moduan, aurten bere Mungiako Udalak 2013ko egutegia prestatu dau. Egutegi hori Agirre Jauregian eskuratu ahal izango da 2013ko lehenengo hileetan, dagozan aleak agortu arte.

Aurten lehenengoz euro bat ordaindu beharko da ale bakotxeko eta batzen dan diru guztia Mungian baliabiderik ez daukien familiei laguntzeko izango da.

2013ko edizinoan sasoi baten herriari lagundu eutsien Mungiako 12 gizon handi eta ospetsuren ganeko biografiak batu dira. Eurotarik gehienak XIX. mendearen bigarren erdian edo XX.aren lehenengo erdian jaioak dira. Honen bidez mungiarrei herriko kale garrantzitsuenen izen batzuen ganeko azalpenak emon gure deutseguz.

Hile bakotxa horreetariko pertsonaia ospetsu baten ganekoa da, Zubiaga neba-arrebei biei batera eskaini jaken hilea izan ezin; horretan biak agertzen dira; izan bere, biek lagundu eutsien gure herriari sasoi haretan.

Danerik daukagu bertan: musikariak, margolari ospetsuak, enpresariak, kirolariak, elizgizonak...

Egutegi honen helburua Mungiaren historiaren ganeko azalpen batzuk eskaini gura dira; euren lanen bidez gure herriaren bizimodu kultural, ekonomiko eta soziala bultzatu daben pertsonaia azpimarragarri batzuen barri emon gura da. Honi lotuta, Udalak eskertu egin gura dau Jose Etxegarai historiagilearen lana; izan bere, berak ezertariko irabazi asmo barik, lagundu egin deusku egutegi honetarako ikerlana eginda. Honen bidez espero dogu lan hau baliagarria izatea herritar guztiontzat Mungia apurtxu bat hobeto ezagutzeko.

## Mungia edita un nuevo calendario solidario para 2013

Como es habitual en estas fechas, el ayuntamiento de Mungia ha editado un calendario que se podrá recoger en Agirre Jauregia durante los primeros meses del año 2013 hasta que se agote. Por primera vez se cobrará un euro por calendario y el dinero recaudado se destinará a ayudar a las familias sin recursos de Mungia.

En la edición de 2013, se han recogido las biografías de 12 prohombres benefactores e ilustres de Mungia, nacidos en su mayoría en la segunda mitad del siglo XIX y primera mitad del siglo XX, con el fin de dar a conocer a todos los mungiarras el porqué de sus calles más importantes. Cabe destacar que cada mes se dedica a un ilustre, salvo un mes que está dedicado a los hermanos Zubiaga, que son hombre y mujer, y tanto ella como él hicieron aportaciones importantes a nuestro municipio.

Tenemos desde músicos a pintores famosos, pasando por empresarios, deportistas o miembros del clero.

El objetivo de este calendario es dar a conocer los personajes destacados de la historia más reciente de Mungia, que con sus obras han impulsado la vida cultural , económica y social de nuestro municipio.

Desde el ayuntamiento de Mungia, agradecemos la labor desinteresada del historiador José Etxegarai que ha llevado a cabo la investigación y gracias a su trabajo en la realización del calendario, esperamos que los vecinos y vecinas de Mungia conozcamos más nuestro pueblo.

STAFF

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Elorduigoitia, 4 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 12 / harrera@mungia.org / www.mungia.org

**ALE KOPURUA:** 7.000

**LEGE GORDAILUA:** BI-2224/2012

MUNGIA UDALA AYUNTAMIENTO